

# ARGIA



**HARPIDETZA  
EREDU BERRIA**

**INDARTU  
DEZAGUN  
INDARTZEN  
GAIUENA**

---

**JUNE FERNANDEZI  
ELKARRIZKETA  
BERE LIBURUAZ**

---

**URA, FRACKINGA  
ETA ABORIGENEN  
DUINTASUNA JOKOAN  
STANDING ROCKEN**

---

**ZER DAGO  
ALTSASUKO ZIRKU  
MEDIATIKOAREN  
ATZEAN?**



Euskarak lotzen gaitu,  
elkartu, anaitu,  
gertutasuna sortu,  
tarreak amaitu  
izan nahi dugun hura  
izateko gaitu  
euskaraz egiteak  
hori lotzen baitu  
konpartitzen dugunak  
aberasten gaitu.



EUSKARAZ ERE,  
NATURALTASUNEZ

**PANORAMA**

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Aborigenak borrokan Standing Rock-en

**IRITZIAK**

- 17 Asier Blas
- 18 Endika Alabort Amundarain
- 19 Iñaki Odriozola Edu Zelaieta
- 20 Bea Salaberri



*Espainiako Auzitegi Nazionalak zazpi lagun espetxeratzeko agindu du Altsasuko gertakariengatik. Auziaren gakoak aztertu ditugu. (ARGAZKIA: EKINKLIK)*

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA: MAURA FEBLES
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: JOSEBA LARRATXE

**SAKONEAN**

- 12 | June Fernández, 10 ingobernables liburuaz / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Altsasuko eskandalua: Zer dago zirku mediatikoaren atzean? / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 28 | ARGIAren harpidetza eredu berria: Indartu dezagun indartzen gaituena / ARGIAko lantaldea
- 32 | Hondarribia: Hiztegi herrikoia osatzeko Facebookideekin blagan / Mikel Garcia Idiakes
- 37 | Goizetik gauera olio saltzaile bihurtu zen etxegilearen iruzurra / Eider Madina Berasategi
- 44 | Sor lekua hegalez / Itxaro Borda

**ARGIA** KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua


**Gipuzkoako Foru Aldundia**


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,  
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Jabetza:** Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

**Lehendakaria:** Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.

**Erredakzioa:** Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

**Diseinua:** Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

**Produktzioa:** Antza S.A.L.

**Harpidetzak:** Iraitz Agirre.

**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

**Idazkaritza:** Aloña Soraluze, Bego Zuza.

**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

**Web garapena:** Asier Iturralde.

**HELBIDEAK:**

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

**POSTA ELEKTRONIKOAK:**

Komertziala: komertzial@argia.eu. Harpidetzak: harpide@argia.eu. Erredakzioa: kazeta@argia.eu.

Interneten: www.argia.eu.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

**HARPIDETZA:**

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

## Txartel gorria matxismoari

'Haserre gaude! Aurrean Gaituzue! Antolatuta gaude!' Ielorean milaka lagun kalera atera ziren azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Bilbon ere hala egin zuten, eta manifestazio jendetsuaren aurretik oso aldarrikapen "sinbolikoa" egin zuten. Athletic futbol taldeko emakumeei liga garaipena ospatzeko Gabarra ateratzea ukatu zitetenez, 140 emakumek Portugaletetik Bilborako bidea itsasadarrez egin zuten, emakumeek sufritzen dituzten diskriminazio anitzei txartel gorria ateratzeko.

Argazkia: Aritz Loiola · Testua: Axier Lopez



TXARIC  
GORRIA  
MATXISMOARI

“Castro ona ote zen? Auskalo, baina bistan da diktadore etiketa hutsak gibel-asmo bat duela: sistema zilegi bakarra kapitalismo neoliberal dela”

@ororostorm

“Munduko herritarrak: planetan gose diren 150.000.000 haurretatik bat bera ere ez da kubatarra”

@TrapieLLo

“Fidel Afrikako eta Asiako askapen nazionalen mugimenduen bultzatzaile izan zen, baina baita Hego Amerikako garaiko aldaketaren arkitekto ere”

@KatuArkonada

“Kubako iraultzak, bere arrakastei esker eta gabeziak izan arren, erreferentzia garrantzitsua izaten jarraitzen du planetako milioika txiroentzat”

Ignacio Ramonet



## Osasunbidean abortatzeko eskubidea ziurtatuko du Foru Gobernuak

Euskalerrria Irratia  
@fm914

“Abortuaren dekretua baino gehiago da hau, sexu osasun politika berri baten ikurra delako, errealitate sozial berriarekin bat etorriko dena”. Halaxe deskribatu du Fernando Dominguez Nafarroako Osasun kontseilariak Foru Gobernuaren erabakia: Osasunbidean abortatzeko eskubidea ziurtatuko du, dekretu bidez.

Abortua arautzeaz gain, Sexu Osasunerako eta Ugalketarako Zentro bihurtuko dituzte orain arte Emakumeak Artatzeko Gune zirenak. Zentro horietan guztietan normalizatuko da abortu

farmakologikoa, eta arreta integrala eskainiko dute.

Dekretuak, hortaz, sare publikoan abortatzeko aukera ziurtatuko du eta inplantazioa progresiboa izanen da.

Arrazoi medikuak tarteko direnean, amak edo umekiak gaixotasuna dutenean, ospitale gunean egingen dira abortuak. Botika bidezkoak direnean, osasun sexualerako egoitza guztietan eta haurdun dagoen emakumeak eskatutako abortuak 14 astera artekoak direnean ere ospitale gunean egingen dira.

Parte hartze prozesu luze baten ostean aurkeztu dute dekretua. 346 zuzenketa aplikatu dituzte, “araua hobetzeko”.

## “Kuba geratuko zaizu”

JOSE MUJICA, URUGUAIKO PRESIDENTE OHIA

Eskutitz irekia idatzi dio Mujicak Fidel Castrori, azken honen heriotzaren ostean: “Kuba geratuko zaizu; hor jarraituko du analfabetismorik gabe, osasun sistema publikorik onenarekin, kontinenteko hezkuntzarik onenarekin, eta ni oraindik hemen, zentzurik ez duen borroka batean murgildurik, Hegoaldea egunero Hegoaldeago delako, munstroek aurrera egiten jarraitzen dutelako temati eta alde guztietatik datozkigulako. Zuk zer esango zenuke? ‘Ez da triste egoteko, borrokak jarraitzen du eta aurrera, ez da besterik’ (...) Zuri, Karibeko izar horretan, keinu bat eta garaipenera arte... beti!”. **REVOLUCION3.0 (2016-11-26)**



HABEMUS CALIMUCHUS!

abertzale moderatuak



+ nazionalista amorratuak



CK



Goiko argazkian (@Nballuerka kontutik hartua), Nekane Balluerka botoa ematen. Beste bi irudiak @buiakainfo kontutik hartu ditugu.



## Nekane Balluerka errektore, %12ko parte-hartzearekin

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Nekane Balluerka EHU errektore kargua hartuko duen lehen emakumea izango da, azaroaren 24an hauteskundeak irabazi ondoren. Parte-hartze baxua (%12) eta ikasle protestak izan dira protagonistak bozketa egunean. Hautagai bakarra izanik botoen heren bat behar zuen garaile ateratzeko eta boto haztatuaren %66,3 lortu du, duela lau urte Iñaki Goirizelaiaren hautagaitzak baino hamar puntu gehiago. Ikasleen artean, ordea, boto zurien igoerarekin, Goirizelaiak baino lau puntu gutxiago lortu ditu egun Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen errektoreorde denak.

Bozkatzera deituak zeuden ia 48.000 lagunetik 6.000 baino gutxiagok eman dute botoa, hau da, %12,3ak. Halere, duela lau urtekoarekin alderatuz parte-hartzeak gora egin du –bi puntu–, hamaika puntu jaitsi den administrazio eta zerbitzuetako langileen artean izan ezik.

### Ertzaintzaren karga

EHUren Leioako campusean protesta egin zuen ikasle mugimenduak, unibertsitate ereduaren aurka eta *Gurea eraiki* lelopean. Istimuak izan ziren, Ertzaintzak gazteen aurka kargatu zuen eta ikasle

bat atxilotu. Aurretik, Guardia Zibilak Gasteiztik Leioara bidean zihoazen lau autobus gelditu zituen gazteak identifikatzeko. Polizia campus barrura sartu izana salatu dute ikasleek, baita “zenbait hedabideren manipulazioa” ere.

Emaitzak jakin ondorengo hitzaldian, Balluerkak unibertsitate publikoan “konfiantza” izateko eskatu zien ikasle, irakasle eta langileei, gizarteak aurrera egitako ezinbestekoa delako.

### Errektoretza hauteskundeen funtzionamendua

Bozkatzera deiturik zeuden lagun guztien botoak ez du berdin balio, EHUk haztatze sistema baten bidez funtzionatzen baitu. Ikasleek hautesle erroldaren %84,6 osatzen duten arren, botoen %22,08 dago euren esku. Beste muturrean lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreak daude, erroldaren %4,6 dira, baina botoen %56,25 dago hauen esku. Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile ez doktoreak %0,7 dira eta botoen %7,5 dute. Gainerako irakasle eta ikertzaileak %6,2 dira eta botoen %2,09 dute eta administrazio eta zerbitzuetako langileak erroldaren %3,9 dira eta botoen %12,08 dute. Ikasle kontseiluak desoreka hau salatu zuten bozketen aurretik.

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Eusko Jaurlaritzaren berriaren “austeritate” neoliberala



Juan Mari Arregi

Ez da ohikoa txoko honetan PSE eta EAJren arteko paktu politikoa edo antzekoak aztertzea, baina akordio horren osagai sozioekonomikoei azpimarra jarri nahiko nieke. Hasteko, harridura sortzen du aurreko agintaldian Urkulluren Gobernuak zortzi sail izatea eta oraingoan hamaika. Lehendakariaren soldata (98.494 euro) eta bere sailburu, goi kargu eta aholkulariarena, orotara 358 pertsonen nomina dira eta diru-kutxa publikotik urtero 23 milioi euro bideratzen dira horretara. Orain, hiru sail gehiagorekin eta euren sailburuordetza, goi kargu eta aholkulariekin, zifra globala 30 milioitik gora igoko da.

Hori da EAJk PSEri ordaindu behar izan diona inbestidura saioko bere babesagatik: sozialistek jaten eman –garbi dagoenean hauteskundeetan maldan behera doazela–, baina aldi berean eurak ere jaten segi, bere zortzi sailak mantenduz. Beste kontu bat litzateke EAJk egoera berriaz jabetuta bere sailtako nominak murriztu izan balitu. Baina ez du halakorik egin. Nik, EAJk, nireak mantenduko ditut eta gainera beste hiru ireki PSErentzat. Hori bai austeritate eredu, prekarietatean, langabezian eta bazterkerian bizi direnen aurrean.

Akordioaren eduki sozioekonomiko eta fiskalari dagokionean, ezer gutxi esan daiteke, xehetasunera jotzen ez duten printzipioak baitira. Borondate ona adierazten duten aitortzak baino ez. Eta badakigu, duela aste pare bat aipatu genuen bezala, EAJren arima neoliberala dela; baina PSEren sozialdemokraziak ere horren antza handia du. Horixe erakusten du zortzi sailetik hamaikara igarotzeak.





JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

## Elhadji Ndiayeren heriotza argitzeko eskatu dute

**IRUÑEA.** Bizitza da Handiena. Pertsona beltzen bizitzek axola dute. Lelo horren atzean kalera atera ziren ehunka lagun Iruñean, azaroaren 26an, Sos Arrazakeriak eta beste hainbat gizarte eragilek deituta. Duela hilabete inguru, Elhadji Ndiaye hiriburuko komisaldegian hila agertu zen. Senegaldarra zen gizona, eta Espainiako poliziak hartu zuen atxilo, "bortxaz", gerora hainbat lekukok adierazi zuten. Gertatutakoa argitzeko eskatu zuten protestan. Iñaki Redin mobilizazioko deitzailearen hitzetan, "informazio ofizialak eskasak izan ziren, poliziak prentsa ohar bat igorri zuen, eta hainbat galderek erantzunik gabe segitzen dute: zergatik gelditu zuten? Zer gertatu zen horrelako atxiloketa bortitza izateko? Zer gertatu zen poliziaren zaintzapean zegoen bitartean?"

## Iñigo Urkullu lehendakari, PSEren babesarekin

Ainhoa Ortega Bretos

@ob\_ainhoa

Gernikako Juntetxean egin dio zin Iñigo Urkulluk lehendakari karguari. Legebiltzarrean, 37 boto jaso ditu bigarren bozketa saioan: EAJren 28ak eta PSEren 9ak. Lehendakari izatea baino "ohore handiagorik ez dagoela" adierazi du Urkulluk, eta legegintzaldi berrian elkarriketa eta akordioak "ezinbestekoak" izango direla.

### Maddalen Iriarte

EH Bilduko Maddalen Iriartek ere lehendakari izateko hautagai aurkeztu zuen bere burua. Gobernu feminista, murrizketarik gabeko herria eta erabakitze eskubidea aldarrikatu zituen, besteak beste.

### Lehentasunak

Horrez gain, EAJren gobernuaren lehentasuna hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzea izango dela esan du Urkulluk. Enplegu plan berri bat iragarri eta enpresen lehiakortasunaren alde egin zuen.

### Sailburuak

Sailburuen artean, sei izen berri izango dira: Beatriz Artolazabal, Pedro Maria Azpiazu eta Bingen Zupiria (EAJ), eta Iñaki Arriola, Jose Alfredo Retortillo eta Maria Jesus Carmen San Jose (PSE-EE).

ERABAKITZEKO  
ESKUBIDEA



**%95,2**

dira Euskal Estatu burujabearen alde egin dutenak Diman (%63,4ko parte-hartzearekin). %80,4k egin dute alde Bakaikun (%65,3ko parte-hartzea).

**111** herritan galdeketa egingo dituzte 2017an, Gure Esku Dago dinamikak sustatuta. Orain arte, 38 herritan egin dira galdeketa



### ERRAUSTEGIAREN AURKA

Milaka herritarrek manifestazioa egin dute Donostian, Zubietako erraustegiaren aurka. Gurasos elkarteak deituta, Gipuzkoako Diputazioari konponbide bateratua eskatu diote hondakinen kudeaketa adostasunez bideratzeko.



### KARTELAK JARTZEAGATIK ISUNA

Zarauzko Udalak 500 euroko isuna jarri die Euskal Jaietan Zubietako erraustegiaren aurkako kartelak jartzen ari ziren bost laguni, "garbiketa eta espazio publikoaren zaintza" ordenantza baliatuta. Isunaren atzean "motibazio politikoa" dagoela adierazi dute.



### AMNISTIAREN ALDE

"Preso, iheslari eta deportaturik gabeko Euskal Herri askea" aldari, amnistia eskatu dute Bilbon, Euskal Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak deitutako manifestazioan.

# Ur garbia, frackinga eta aborigenen duintasuna jokoan Standing Rocken



Pello Zubiria Kamino

@pelozubiria

Siux jendeak Ipar Dakotako Standing Rocken daukan lurralde ustez autonomoan ari da jokatzeko AEBetako gudu sozial handienetakoa, bere baitan biltzen dituena petrolioaren ustiatzearen, klima aldaketaren eta ura eskuratzeko eskubidearen inguruko gatazkak. Baina jatorrizko herritar amerindiarrek, bizirauteko dauzkaten ezintasunak ere azaldu dira argitara. AEBetako *establishment*aren agintekeria bezala.

*Thanksgiving* berezia ospatuko zuten milaka lagunek Standing Rockeko Oceti Sakowin eta Sacred Stone Camp kanpamentuetan. Hotzak, polizia federalak egurtuak baina, beren buruei *Water Protectors* (uraren zaindari) deitzen dietenen mezuei sinestekotan, borrokan jarraitzeko gogoak apaldu gabe.

Kanpaleku nagusian Judy Wicks idazle eta ostalaria 500 lagunentzako afora eskaini zuen azaroaren 24an, berak eta beste zenbait pertsonalitatek oparitutako jakiak koinatuz, artean Jane Fonda bidalitako bufalo haragia. Oparigileak berak aritu ziren zerbitzari.

Wick andreak hamabostgarren urtez eskaini die *Tyanksgiving*a AEBetako aborigenei, horiek eskertu nahian 1620. ean Europatik etorriberriei erakutsitako eskuzabaltasuna. Gaur Massachusetts den lekura iritsita, lehenbiziko ne-gua uztarik gabe goseak pasatu behar zutenean, bertako Wampanoag jendea prest egon zen zeukaten elikagaia haiekin elkarbanatzeko.

“Geroztik –idatzi du Wickek *Ecowatch* gunean– tamalez eta lotsagarriki, europarren etorrerak 500 urteko genozidio eta traizioa ekarri zizkien jatorrizko amerikarrei. Akordio oro hautsia izan da orain artean, zuri espantsionismoaren mesedetan. Ipar Dakotan genozidiotik bizirik ateratakoek gaur aurre egiten diote 3.700 mila milioi dolarreko *Dakota Access* oliobideari, milioika herritarren edateko ura hilerri sakratuak mehatxatuz Texaseko *Energy Transfer*

*Partnersek* petrolio oso sukoia garraiatzeko Missouri ibai hondotik, urratu duen oliobideari”.

1.825 kilometroko hodiak balio behar du Ipar Dakotako Bakken eremuan fracking bidez ateratako petroliotik 450.000 upel Illinoiseraino garraiatzeko, hemen lotuz AEBetako sare nagusiarekin. Obraren sustatzailea den Energy Transfer Partneren jabea, Kelcy Warren, AEBetako aberatsenen zerrendan 372. dago eta mundukoetan 1.067. Azken hauteskundeetan estreina Rick Perry errepublikarrari lagundu dio diruz eta ondoren Donald Trumpi.

Matxinada, Twitterrez *#NoDAPL* traolarekin ordu oro jarrai daitekena, 2016ko udaberrian piztu zen, konpainiak erabaki zuenean petrolioak zeharkatuko zituela Missouri eta Mississippi ibaiak, Oahe aintzira eta Standing Rock siux erreserbaren lurak.

Oliobidearen kalteak baloratzeko eta amerindiarren tribuak ez galdekatu izanagatik, nabarmenki Standing Rockeko siuxak, 2016ko apirilean EPA Ingurumen Babesteko Agentziak, Barne ministerioak eta Historiaren Babeserako Aholku Batzordeak eskatu zioten Armadaren ingeniari gorpuzari ingurumen eraginen azterketa osoa egitea. Uztaileko militarrek txostena prest zeukaten: ibai zeharkatzeko biderik egokiena Dakota Access zen.

Apirilean tokiko siuxen buruzagiek kanpalekua antolatu zuten, kultur ondarea zaindu eta oliobidearen kontrako



erresistentzia bideratzeko. Udan zehar milaka jende osatzeraino zabaldu zen kanpalekua. *ReZpect Our Water* (Gure Ura Zaindu) amerindiar gazte erakundeak Standing Rocketik Washingtonerainoko martxa egin zuen, gizartea ohartarazteko oliobideak Mississippi eta Missouri ura edateko bezala nekazaritzarako behar dutenen arriskuez.

Irailean bulldozerrek hondeatu zuten ordura arte agintariek eremu historiko eta erlijiozkotzat jotako eremua. Protestan joandakoei konpainiaren guardak zakurrak bota zizkieten, dozena erdi bat ausikika zaurituz *Democracy Now!* kaiteak zabaldu eta milioika jende *YouTube* ikusi duten erasoan. Urriaren polizia eta militarrek hustu zuten kanpalekue-tako bat. Azaroaren 20ko gauean poliziak ur hotzez zigortu zituen -2<sup>o</sup>Cko izotzetan makinei aurre egiten zieten herritarrek.

## Sakratua, erlijioa baino gehiago

Ipar Dakotako Bakker eremua aipatzeak askori *fracking* deitu haustura hidraulikoz petrolioaren erazi eta garraiatzeak dakartzan kalteengatik haserrea pizten dio. Olioaren harkaitzari leherkari eta kimikoz isuri arazteak berak sortutako kutsadurez gain, garraio bidean ere istripuak gertatuak dira dagoeneko.

2013ko uztailearen 6an, Bakkeneko petrolioaren 77 bagoitan zekarren tren batek talka egin zuen gasez zamatutako beste batekin eta sutean 42 pertsona hil eta 30 eraikin kiskali zituen Lac-Mégan-



*Dallas Goldtooth argazkian, AEB osotik etorritako amerindiarrak eta aktibistak oinezko ibilandian doaz Standing Rockeko erreserban urratu duten oliobidearen obretara. "Sakratua defenda dezagun" dio pankartak. Nega kanpaturik igarotzeko asmoa adierazi zuten ekintzaileek. Hori eragozteko, polizia eta militarrek ura, gasa, pilotak, bonba negar eragileak eta material bortitza goak ere erabili dituzte.*

tic hirian, Kanadako Quebecen. Oliobideetan ere istripu eta isuririk ez da falta izan urteotan. Kutsaduraren beldurraz gain, klimaren aldaketa eta erregaien kontsumoa murriztu beharra da Standing Rockera militanteak ekarri dituen beste argudio osagarria, garapen eredu aldatu beharra esan nahi baita. Gogor egin beharko dute borroka bere bizi publiko osoan klimaren aldaketari pixa egin dion Donald Trumpen agintealdi berrian.

Amerindiarrak gatazkari eman nahi dioten dimentsio etniko eta espirituala ere ez da ahaztekoa, gizarte industriaren umeoi gaitz zaigun arren ulertzea nolaz haserrarazi ditzakeen hainbeste oliobideak hilerri bat urratzeak.

Lehen kanpalekua antolatzeko deia egin zuen LaDonna Bravebull Allard andereak, erreserbaren ondarearen ardu-

radunak, esan du: "380 gune arkeologiko suntsitu dituzte oliobidea egiteko, horietatik 26 justu bi ibaien inguruetan. Ere historikoak dira, leku sakratuak ez bakarrik Siux nazioentzako baina baita Arikara, Mandan eta Iparraldeko Txeieneentzako ere. AEBetako gobernuak desegiten ditu gure eremu kultural eta espiritual garrantzitsuenak. Munduan utzi ditugun lorratzak suntsitzean, gobernuak herri bezala suntsitzen gaitu. Ere muok defenditu behar ditugu, bestela gure mundua amaituta dago, hori bezain sinplea da. Gazteek eskubidea dute nor eta zer diren jakiteko, hizkuntza, kultura eta tradizioa zor zaizkie. Petrolio konpainiari uztea desegiten gure historia, gure arbasoak, gure bihotzak eta arimak, ez al da genozidioa?"

AEBetako agintariak edozein konpainiari Standing Rock erreserban es-

kua sartzeko baimenik eman aurretik bertako agintari siuxen oniritzia behar zuen, indarrean dauden itunen arabera. Allard andereak berak, duela 153 urte militar yankiek parajeotan bertan masakratu zuten tribuko kide delarik, banan bana azaldu ditzake bake aitzaikiatan sinarazi eta Washintongek gero urratutako itunok. Azken finean, edozein paperen aurretik beti izan baita oinarrizko lege "Aurkikuntzaren Dotrina", 1494tik europarrak aborigenen lurren jabe egiten dituen mundu osoan.

Irailaren 20an Standing Rockeko tribuaren ordezkari Robert T. Coulter Geneban mintzatu zitzaizen Nazio Batuen Erakundeko ordezkariari, laguntza eske, AEBetako Gobernuak suntsitu nahi ditzuelako. Alferrik. Ikusi Interneten poliziak aktibista baketsuen kontra zer nolako munizioak darabiltzan. ■

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

Facebook and Instagram icons.

June Fernandez, kazetaria

# «Heroi perfektuak sortu ordez, haien kontraesanak azaleratu nahi nituen»

Hamar pertsona gobernaezinen bizi-istorioak bildu ditu June Fernandezek bere estreinako liburuan. Aurrez ere, ezagun genion gauzak iraultzeko grina hori, *Pikara* aldizkari feminista sortu baitzuen orain sei urte, hainbat lagunekin batera. Azaldu digunez, zaintza eta maitasuna ere txerta daitezke kazetari-jardunean.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## Betidanik izan al duzu kazetaria izateko gogo?

Txikitik ez nintzen kontziente, baina atzera begira konturatzen naiz boka-zioa nabaritzen zela: elkarrizketak egin amonari, eguneroko bat idatzi...

## Zer gustatzen zaizu kazetaritza-lanetik?

Munduan barrena noala, jende interes-garria topatzen dut, eta bulkada sentitzen, beti, horien istorioa kontatzeko. Bestalde, tabuak diren gaiak azaleratzeko bide bat da.

## Eta, feminista, betidanik izan ote zara?

Nik uste dut gauza berbera gertatzen dela horrekin ere: kontzienteki, ez nuen nire burua halakotzat jotzen, baina bai gogoratzen ditut hainbat momentu. Esan behar dut txikia nintzenean nire inguruan hainbat emakume feminista zeudela, ez antolatuak, baina irakur-gaiak eman zizkidaten, adibidez. Bestalde, nire aita nahiko bitxia da eta berak sartu zidan hizkuntza ez-sexistaren kezka. Gogoratzen dut institutuko liburutegian bazegoela liburu bat, Gizonaren historia, eta nik *gizona* kendu eta *gizakia* jarri nuen.

## Ikasketak amaitzean *El País*-en egin zen nuen lan.

*El País*-eko Euskadiko erredakzioan lanpostu bat geratu zen libre eta unibertsitateko irakasleek gomendatuta iritsi nintzen hara. Sorpresa izan zen. Hiru urtez egon nintzen han lanean eta printzipioz nire ardura zen unibertsitate eta ikerketa gaietaz buruz idaztea, baina nire argi ikusi nuen nire interes nagusiak feminismoa, immigrazioa eta arrazakeria zirela. Ondoren krisialdia etorri zen eta erabaki nuen nik neuk egitea ospa, haiek ni kaleratu baino lehen.

## Gustura aritu al zinen?

Pila bat ikasi nuen. Garai hartan gertutik jarraitzen ninduten nagusiek eta kazetari bezala asko ikasi nuen; nahiko estilo bortitza zen, hala ere. Askatasun asko neukan, seguru asko gai sozialak lantzen nituelako eta *El País* nahiko aurrerakoia delako horretan. Politikan edo nazioartean ibili izan banintz sekulako liskarrak edukiko nituen, politikoki ez nengoelako gustura haien ildoarekin. Baina, gizarte-gaietan, adibidez, Euskal Herriko Jardunaldi Feministetara joan

nintzen eta kronika bat argitaratu nuen, transexualei buruz idatzi nuen...

Bestalde, nik nahi nuen kazetaritza praktikatzeko hainbat oztupo zeudela nabaritu nuen, eta erredakzio giroa oso-oso maskulinoa zen. Emakumea eta gaztetxo nintzen eta oso txiki sentitzen nintzen. Emakume gutxi zeuden, eta gure artean bazegoen halako lehia-kortasun bat edo mesfidantza bat nire aldera, gaztea nintzelako. Geroago jakin nuen nire kontrako komentario sexistak

## June Fernandez

1984, Bilbo

Ikasketaz, kazetaria da June Fernandez, eta horretan aritu da unibertsitatekoak amaituz geroztik; *El País*-en lehenik, *Pikara* aldizkari feministan gero. Gainera, hainbat hedabiderek kolaboratzen du, tartean *eldiario.es* egunkariarekin eta ARGIArekin. Bere estreinako liburu argitaratu berri du: *10 ingobernables. Historia de transgresión y rebeldía* (Libros del K.O.).



egon zirela, besteak beste asko publikatzen nuela nagusiek erakargarritzat mindutelako. Ez nintzen oso ahaldunduta sentitzen hor barruan, egia esan.

**El País utzi eta SOS Arrazakeriako liberatua izan zinen urtebetez. Nola elikatu du arrazakeriaren aurkako borrokak zure feminismoa?**

Horri esker, ez diet soilik arreta jarri feminismo zuriaren aldarrikapenei, eta zalantzan jarri ditut nire pribilegioak. Interesatzen zaidan feminismoan ni edo gu ez gara beti biktimak; aitzitik, batzuetan, zapaltzaileak izan gaitzke.

**Zuria izanda arrazakeriaren aurkako erakunde batean aritzeak zer-nolako lanketa eskatzen du?**

Bere garaian ez nuen oso argi ikusten, nik uste ez neukala deserosotasun horren kontzientziarik. Baina egoera batzuetan ohartu nintzen bazeudela halako dinamika batzuk, adibidez, hedabideetan atera ginen Senegalgo militantzia-kide bat eta ni. Bera gizona zen, eta ni emakumea, baina kasu horretan neu hartu ninduten aditutzat eta bera, ordea, lekukotzat.

Gero, SOS Arrazakeriak jardunaldi batzuk antolatu zituen, beste elkarte feminista batzuekin elkarlanean, eta niretzat oso garrantzitsua izan zen une hura. Indarkeria matxistaren eta immigrazioaren gaia atera zen. Feminista zurienez kezka zen ea nola hitz egin genezakeen kalean jasaten genuen sexu-jazarpenaz, aurreiritzi xenofoboak hauspotu gabe. Baina hor etorri ziren etorkin feministak, eta esan: "Zuek ez dakizue zer-nolako sexu-jazarpena bizi dugun gizon euskaldunen aldetik". Oso garrantzitsua da espazio horietan mugitzea, bestela uste baituzu zeure zapalkuntza dela existitzen den bakarra, eta arriskutsua da hori.

**Edonola ere, kazetari-lanera itzultzea erabaki zenuen, eta halaxe abiatu zen Pikara.**

Komunikatzeko beharra hor daukat beti, nire bokazioa da. Egun batean pixka bat triste nengoen, kazetaritzara itzuli nahi nuen, baina ez nekien nola, eta Lucía Martínez Odriozola irakaslearekin hizketan ari nintzela esan zidan ea zergatik ez nuen neure hedabidea sortzen. Kazetarien Berdin Sareko kide ginen biok. Nahiz eta, printzipioz, sare horren helburua izan norbera zegoen hedabideetatik eragitea, konturatu ginen gure gunea



baldin bageneukan askeago izango ginatekeela oztupo barik jorratzeko geuk egin nahi genuen kazetaritza. Gainera, garai horretan itxi zen *Frida* aldizkaria, beraz Euskal Herrian ez zegoen feminismitik abiatzen zen aldizkaririk, nik behintzat ez nuen ezagutzen.

**Zer helburu zenuen?**

Hasiera batean bildu ginen Kazetarien Berdin Sarean gehien ibiltzen ginenak: Maite Asensio, Lucía Martínez Odriozola, Itziar Abad eta lauok. Diru pixka bat jarri eta webgune bat diseinatu genuen. Ez genuen izan nahi emakumeen komunikabidea, emakumeei zuzendua, emakumeei buruzkoa, baizik eta nolabait frogatu posible dela kazetaritza orokorra egitea baina feminismoa beti hor sartuz, begiradan. Nahi genuen heldu feminismoan sartuta ez zegoen jendearengana, burbuilatik atera. Bestetik, ikusten genuen Euskal Herriko feminismoan, garai horretan, pil-pilean zegoela mugimendu feministaren zatikatzea, eta interesgarria iruditzen zitzaigun es-

pazio atsegin bat sortzea feminista oso anitzen artean eztabaidatzeko. Azkenik, feminismoaren ospe txarrari aurre egiteko, hauexek ziren geure armak: umorea, plazera eta freskotasuna.

**Bisituen herena Latinoamerikatik dator-kizue.**

Guk ez genuen espero baina konturatu ginen hango jendeak ere asko irakurtzen zuela aldizkaria eta pentsatu genuen ez zela bidezkoa eta pribilegio-toki batean kokatzen gintuela haiek gu irakurtzea eta guk hara ez begiratzea. Gero, neu ere Managuan bizi izan nintzen, Itziar Abad Ekuadorren, eta kontzientzia hartu genuen Latinoamerikako feminismitik izugarri ikas dezakegula.

**Zer ikasi zenuen zuek?**

Gauza asko. Guatemalan ere izan naiz eta ikasi dut umiltasun asko izan behar duzula. Hasieran joaten zara zure aurreiritziekin eta zure dogmekin eta pixkana-pixkana apurtu behar dituzu eta zeure feministometroa erlaxatu. Liburuan ere



agertzen da hori, esate baterako, Doña Sebastianaren atalean: komunitate indigenetan, emakume batek tratatu txarrak jasotzen dituenean, helburua ez da dibortzioa lortzea, baizik eta lortzea senarrak ez dezala gehiago jipoitu. Edo, emakume lider indigena asko, abortuaren gaia aipatzen badiezu, guztiz kontra agertzen dira. Gakoa da testuinguru bakoitzean egoera ulertzea eta asko en-

tzutea. Bestalde, nabarmentzekoa da zer garrantzi ematen dioten norbere burua zaintzeari. Jardunaldietan, adibidez, biodantza egiten dute, erlaxatzeko ariketak... Espiritualtasuna txertatzen dute eta Euskal Herritik joanda, dena zurrun, ba sorpresa handia izan zen.

### Nola egiten da kazetaritza ikuspuntu feministatik?

Uste dut feminismoaren eragina ez dela bakarrik edukietan eta produktuan, baizik eta eguneroko dinamiketan. Uste dut feminismoa iraultzailea dela eta kazetaritza iraultzeko bidea ematen duela.

Azken boladan konturatu gara oraindik ere mantentzen dugula halako hierarkia bat: iturri adituak eta testigantza pertsonalak. Adibidez, indarkeria matxistari buruzko erreportaje bat atera, eta jotzen duzu bi aditurengana eta tratatu txarrak bizi izan dituen emakume batengana. Horrelako debateak garrantzitsuak dira guretzat.

Bestalde, *Pikara*, hasieran, nahiko pertsonalista zen, nik koordinatzen nuen proiektua eta nik sustatu nuen, baina, gaur egun, ColectivoEditor izeneko gune bat daukagu, hiru koordinatzaile gara eta asmoa da horizontala izatea.

### Presentzia publiko handia izan duzu eta daukazu. Nola bizi izan duzu?

Blogaria nintzenean oso ohituta nengoen nire esperientzietatik abiatzera, pertsonala politikoa dela-eta. Adibidez, sexu-aniztasunari buruz ari banintzen, ba kontatzen nuen zer ibilbide egin nuen heteroarautik lesbianismora. Gero konturatu nintzen gero eta ezagunagoak ginela eta lotsa handiagoa daukat orain, gero eta gutxiago agertzen naiz. Uste dut oreka bat lortu behar dugula:

alde batetik oso ona da proiektzio handia duten komunikatzaile feministak existitzea (Irantzu Varela, Barbijaputa), baina pertsonalismoetan eta egolatrietan erori gabe. Nik uste dut feminismoak oso kolektiboa izan behar duela. Gainera, uste dut dinamika arriskutsuak sortzen direla. Adibidez, Itziar Ziga datorkit burura: komunikatzaile feminista bat modan jartzen dugu, amodio eta gorroto dinamikak sortzen dira, eta gero, halako "huts egin didazu" fenomenoak piztu.

### Nola kudeatu daiteke hori guztia?

Bada, adibidez, liburuaren harira, argitaletxeok proposatu zidaten feminismoari buruzko artikuluak biltzea, baina nik ezetz esan nuen, nahiago nuen bigarren plano batean geratu, eta besteen istorioak kontatu. Iritzi-emaile baino, kazetari sentitzen naiz. Sare sozialak direla-eta, kazetarion proiektzioa lehen baino handiagoa da, eta hori geuk ere esplotatu behar izan dugu, baina bestetik ni horrekin ez nago oso eroso, nahiago dut kontatzen ditudan istorioak egoitea aurrean, eta neu bidea izatea.

### Hitz egin dezagun 10 ingobernables liburuz. Nola abiatu zen prozesua?

Esan bezala, argitaletxearen ekimena izan zen. Libros del K.O. argitaletxeak kazetaritza du erdigunean, eta konturatu ziren emakume eta gizon idazleen artean desoreka zegoela, eta gai feministak ez zituztela orain arte landu. Orain dela hainbat urte bai Nikaraguan bai Kuban liburu-proiektuak izan nituen buruan, baina gero ez ziren mamitu. Erdizka geratu ziren proiektu horietatik atera nituen zenbait gauza, eta ikusi nuen ildo nagusia zela araua hausten duten identitateak eta gorputzak.

Gazte nahiz heldu, euskara ikastea merezi du

HADE

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**Zer irizpideri jarraitu zenion gainerako istorioak aukeratzeko?**

Identitateen aldetik, nahiko kontziente-ki bilatu nuen. Adibidez, istorio guztiak nahiko argi izan eta gero konturatu nintzen ez zegoela mutil transik, emakumeak bai, baina mutilik ez, eta orduan bat bilatu nuen. Lodifobiaren kasuan ere, eztabaida oso bizi zegoen une hartan eta horregatik sartu nuen. Hala ere, istorio gehienak bidean aurkitu ditut.

**Bereziki gogoan duzun istoriorik?**

Ezin dut aukeratu, baina kazetari bezala berezia izan da pertsonaietako asko nire lagunak direlako, eta barne-gatazka sortu dit: June adiskidea versus June kazetaria. Kazetaritza feministaz eta zaintzaz ari garela, unibertsitatean edo hedabide tradizioaletan ikasten duzu kazetari on batek sekula ez diela istorioa bidali behar iturrirei argitaratu aurretik, edo errezelo handiekin ibili behar duzula, eta liburu hau niretzat oso kolektiboa da, protagonistak ez direlako soilik nire kazetaritzako objektuak, subjektuak ere badira, eta aukera izan dute testuan ekarpenak egiteko.



**Azken hitza:**

**Arraroak ez, miresteoak**

Zer ote da Fernandezi esan dioten gauzarik politena, liburuaren harira? Bada igartzen dela maitasun handiz idatzia dagoela: "ABC egunkarian esan zuten arrarotasunaren galeria bat zela liburu hau. Niretzat, ordea, hau ez da jende arraroa edo frikia, nik miretsi egiten ditut, maite, eta beren istorioa kontatzea ohorea eta ardura handia izan da. Maitasuna txertatzen duen kazetaritza iraultzailea iruditzen zait".

**Horren harira, pertsonaien kontraesanak ere erakutsi dituzu.**

Bai, adibidez, berakatz saltzailearen kasuan, bera homosexuala da, agurea, eta bat-batean konturatu nintzen oso xenofoboa zela: hasten zen pakistandarrek saltzen zuten frutaz gaizki-esaka. Orduan zer, aipatuko dut? Bada bai, pertsonaia konplexua baita. Niretzat garrantzitsua zen heroi perfektuak sortu ordez, haien kontraesanak erakustea, ertzak azalartzea, errespetuz.

**Askok uste dute bizitza sobera konplikatzea dela arauak haustea, zer esango zenieke?**

Hori dioten pertsonak ez dute ikusten arau horiek sortzen duten indarkeria. Esate baterako, oso erraza da galdetzea ea zergatik nahi duzun transa izan, bizitza konplikatzea da-eta, ez baldin bada-kizu zer-nolako indarkeria sortzen duen genero binarismoak. Eguneroko sufri-mendu hori ez du ikusten jendeak. Niretzat, garrantzitsua da zapalkuntza-sistema jotzea larrizat, eta ez hori hausten duen pertsona. ■

**ELHUYAR**  
aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza

**16 e urtean**

**Gaurkotasun zientifiko-teknologikoaren berri**  
**Albistek, erreportajeak, elkarrizketak, analisiak, istorioak...**  
**Paperean hiru hilez behin**  
**aldizkaria.elhuyar.eus webgunean eduki berriak egunero**



# Lapur banden etika nazioartean

**J**oseba Sarrionandiak eman duen azkeneko elkarrizketan azaldu duenez, kapitalismoa lapur banden etikaren gainean eraikia da: “Bandaren etikak hazkunde ekonomikoa bultzatzen duelakoan. Eta okerrena da egia dela, zeren Libiako suntsidura, esate baterako, enpresa amerikano eta europarrentzat aukera ederra da hazkunderako, eta lanpostuak sortzeko, esaten duten bezala”.

Gerra negoziua da. Nazioarteko legegia hautsiz, 1999an Jugoslaviaren aurka NATOk egin zuen erasoan, eskolak, erietxeak eta Txinako enbaxada atakatu zituen. Bonbardaketa humanitarioak (sic). Terroristek *Charlie Hebdo* aldizkariaren aurkako erasoan hamabi pertsona erail ostean, elkartasuna zabaldu zen Mendebalde osoan. Aldiz, 1999an NATOk Serbiako Telebistaren egoitza bonbardatu eta hamasei hildako eragin zituenean ez zen terrorismoaz hitz egin, ez elkartasun uholderik sortu Mendebaldean. NATOren zerbitzura zeuden hedabide hegemonikoek sortu zuten marko interpretatiboaren arabera, serbiarrak besteak ziren, eta beraz, konkistatuak eta kolonizatuak izan behar zituzten barbaroak izateari utz ziezaioten.

NATOki zubiak suntsitu zituen Jugoslavian, elektrizitate sarea bonbardatu zuen, milioika pertsona urik eta ogirik gabe utziz. Porlan faktoriak, petrolio industriak, Yugo auto fabrika eta telekomunikazio sistemak bonbardatu eta suntsitu zituen ere bai. Niš-eko tabako fabrika hiru aldiz jo zuten bonbek. Ondoren, AEBetako Philip Morris tabako konpainiak erosi zituen lantokiaren hondarrak prezio ezin merkeagoan, izan ere, bonbardaketek baliabide nazionalen lapurreta burutzeko baldintzak sortzen dituzte.

Azpiegiturak suntsitzen dira, ondoren berreraiki behar izateko. Baina,



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Azpiegiturak suntsitzen dira, ondoren berreraiki behar izateko. Baina, suntsituta dagoen herrialdeak ez ditu baliabideak berreraikitze lanak egiteko. Irtenbide bakarra da nazioartean maileguak bilatzea. Diru hori mendebaldetik ateratzen da mendebaldeko enpresa pribatuetara bueltatzeko eta obrak egiteko

suntsituta dagoen herrialdeak ez ditu baliabideak berreraikitze lanak egiteko. Irtenbide bakarra da nazioartean maileguak bilatzea. Diru hori mendebaldetik ateratzen da mendebaldeko enpresa pribatuetara bueltatzeko eta obrak egiteko. Azkenean etxea puskatu dizu-

tenek zure etxearen parte bat hartuko dute beraientzat, eta beste parte bat berregiteagatik kobratu egingo dizute. Herrialdeak soberania galtzen du zorpetuz gero.

Mendebaldean ordea, pentsatu nahi dugu, esku-hartze militarrek egiten ditugula herrialde horietako giza eskubideen alde. Horretarako, gobernuek iritzi publikoa engainatu egiten dute eraso egin nahi duten gobernu demoniatuz eta bere aurkako gezurrak eta froga faltsuak aurkeztuz. Mendebaldeak azkeneko hamarkadetan esku-hartze militarrek egiteko fabrikatu eta faltsifikatu dituen proben zerrenda amaigabea da. 2003ko Irakeko gerra eta inbasioa justifikatzeko gezurrak entzutetsuak izan ziren, halere, ez dugu ikasten. Zortzi urte beranduago jokaldi berdina egin ziguten Libiarekin, eta orain Siriarekin egiten dute berriz ere.

Erresuma Batuko Komunuen Ganbarako Kanpo Harremanetarako batzordeak Libiako gerrari buruzko txosten bat argitaratu zuen 2016ko irailaren 14an. Bertan argi esaten da Muamar el Gadafiren aurkako altxamendua biolentzia eta armatua izan zela, kanpotik elikatua eta finantzatua. Dokumentuak azpimarratu egiten du Gadafik ez zuela masakre bat planifikatu, nahiz eta Mendebaldeak behin eta berrito bertsio hori defendatu zuen esku-hartze “humanitarioa” justifikatzeko. Aldiz, txostenak dio NATOko esku-hartzearen benetako interesak ekonomikoak eta politikoak izan zirela, eta horren ondorioak lazgarriak izan direla Libiarentzat eta eskualdearentzat. Desastre humanitario bat gertatu da, herrialdea suntsituta dago eta muturreko islamismoa harrotuta dabil hasieratik Mendebaldeak elementu hori gutxietsi zuelako. Baina antza, berdin dio, izan ere, Sarrionandiak dioen bezala, horrela hazten eta aberasten da gure ekonomia. ■

# Erantzuna?

## Historia ekonomikoari galdetu

**H**istoria ekonomikoak epe luzeko analisia du helburu, gertakizun ekonomikoak argitzeko. Herrialde ezberdinek izan zuten hazkunde ekonomiko ezberdinak azaltzeko, Angus Maddisonen populazioa eta BPGri buruzko datu multzo izugarria bildu zuen. Robert B. Marksen azterketek, aldiz, XV. mendean munduaren ekonomia-zentroa Asian zegoela azpimarratzen dute. Baina historia ekonomikoak ez ditu soilik epe luzeko gertakizunak azaltzen.

Beren burua aurrerakoitzat dutenak Brexit eta Trumpen arrakastek erabat ikaratuta utzi ditu. Hainbat arrazoi soziologiko, politiko eta demografiko aipatu dira. Eztabaida honi historia ekonomikoak zer gehitu diezaioke?

Depresio Handia (1930eko hamarkadako krisia) eta Atzeraldi Handia (2008 -...) aldera ditzakegu, antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertuz. Depresio Handiaren sustraiak lehendik zetozen. Lehen Globalizazioa 1870 eta 1914 artean gauzatu zen, mundu ekonomia erabat irauliz; baina honen ondoren, Lehen Mundu Gerrak egoera ekonomikoa ezegonkortu zuen. "20ko hamarkada zenbait herrialderentzat hazkunde aldia da, kreditu malgu eta espekulazioari lotuta. Hazkunde ahul honek ha-



Endika Alabort Amundarain

EKONOMIALARIA

@autogestia

Beren burua aurrerakoitzat dutenak Brexit eta Trumpen arrakastek erabat ikaratuta utzi ditu. Eztabaida honi historia ekonomikoak zer gehitu diezaioke?

markada amaieran eztanda egin zuen, Depresio Handiari hasiera emanez.

Nortzuk izan ziren krisi honen galtzaileak? Orokorrean langileak; baina baita negozio txikiak zituztenak eta nekazariak ziren lur jabe txikiak ere. Alemaniaren kasuan, Depresio Handia aurreko hamarkadan izandako beste krisi larri batzuen ondoren zetozen.

Dirudun handiek are gehiago aberastu ziren, baita gizarte polarizazioa asko handitu ere. Krisitik irteteko, ohiko politikariek ez zuten ezer berririk aurkeztu; beste batzuek, aldiz, hauen artean ultraeskuineko alderdiek, erretorika berria erabili zuten boterea eskuratzeko; gastua azpiegituretan eta arlo militarrean handituz; neurri protekzionistak aplikatuz industria eta lanpostuak babesteko asmoz; finantzen kontrola...

Neurri horiek krisia gehien kolpatutako gizarte taldeen babesa eskuratu zuten. Berdin zen AEBetako Alderdi Demokratikoa edo Alemaniako Nazi alderdia izatea. Beste gauza bat da, ea benetan neurri horien aplikazioak talde sozial hauek babesten zituen ala ez. Aipatu beharrekoa da ere, Bigarren Mundu Gerra izan zela Depresio Handiari amaiera eman ziona, ez aplikaturiko neurri horiek.

Gaur egungo egoerarekin alderatuz, antzekotasunak agerian daude. Globalizazioaren Mendebaldeko galtzaileek neurri mota horien alde egin dute, euren egoera gehiago oker ez dadin. Eta orain arte, alternatiba hauek eskaini dituztenak Trump eta antzekoak izan dira. Horrela uler daiteke, historia ekonomikoa erabilia, eskuineko populisten hauen arrakasta. ■

#bbt16 Finalurrekoa



*bizkaiko bertsozale  
txapelketa 2016*

Antolatzailea  


Babesleak  
  

Laguntzailea  




## LARRABETZU

Udal frontoian

Abenduaren 3an, 17:30ean

Ander Elortegi Garatea, Etxahun Lekue Etxebarria, Ibon Ajuriagojeaskoa Gormendia, Julen Erezuma Arzanegi, Mikel Goiriena Larrazabal, Miren Amuriza Plaza

Ga-jartzailea: Maite Berriozabal Berrizbeltza

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

## Jokoz kanpo



Iñaki Odriozola  
IRAKASLEA  
@Inaki\_Odriozola

agun batek, nire irakurle izateagatik esker-  
rrak eman nizkionean, zera esan zidan, ea  
zergatik ez nuen idazten “lurreko” gauzei  
buruz, eta ez ideia abstraktuen inguruan. Beti  
uste izan dut lurrari loturik hausnartu izan du-  
dala, baina, tira, errealitatera jaisten saiatuko  
nintzela baieztatu nion. Errealitatea. Auskalo!

Esaterako, aitortu behar dut gaur egungo Ameri-  
ketako Estatu Batuei buruz (AEB) ez dakidala asko,  
eta dakidana komunikabide handietatik jasotzen  
dudala. Horien indarra jendartean hain da handia,  
ezen errealitatea ere euren erara eraikitzen dugula.  
Munduan ematen diren milaka eta milaka gertae-  
retatik batzuk bakarrik aukeratzen dituzte, ustez  
inportanteak, eta horien inguruan eraikitzen digute  
egunerokoan, inguruari buruzko ikuskera.

Azpmarratu nahi digutena gelditzen da age-  
rian, eta horri buruz eztabaidatzen dugu, iritziak  
eman, baina beste hainbat eta hainbat kontu, la-  
purtzen dizkigutenak, ez ditugu ezagutzen, ez dira  
existitzen, komeni zaienean ateratzen dizkiguten  
arte. Horretan ere menpean hartzen gaituzte ko-  
munikabideen jabe diren elite boteretsuek.

AEBetako hauteskunde kanpainan, komuni-  
kabide horiek, bai liberalek bai sozialdemokra-  
tek, komeni zitzairen errealitatea azaldu digute,  
Clinton eta Trumpen arteko ustezko borroka,  
alegia. Trump arrazista, matxista, errefuxiatuen  
aurkakoa, erdi-faxista eta lotsagabe eroa omen;

Clinton, ordea, arrazoizko emakumea, USAko  
lehen emakume lehendakaria izan zitekeena, fe-  
minismoaren ohorerako.

Trumpek irabazten badu, esan digute tema-  
ti, hegoamerikar guztiak botako ditu, Mexikon  
horma jasoko du, musulmanek ezingo dute USAn  
sartu, ekonomia hondoratuko da, eta abar. Eta  
egunero hautagaiaren ergelkeriaren bat erakutsi  
digute, esaldi nazkanteren bat, edo aspaldi egin-  
dako pasadizo lotsagarriren bat.

Europa osoa, esan digute behin eta berriz, Clin-  
tonen alde dago. Zein eroak estatubatuarrak, zein  
zentzudunak europarrak! Eta egia da ezkerreko  
sentitzen diren asko ere, Hillaryren alde egon di-  
rela: “Biak eskasak izanik, Clinton ateratzen bada,  
gaitzerdi!”, zioten, hark egindako guztia ahaztuz.

Horregatik, Trumpek irabazi duela jakin dugu-  
nean, aho zabalik denok: nola daiteke milioika  
langilek, eroari bozka ematea? Zer errealitate  
eraiki digute hilabeteetan, eta zer ezkutatu digu-  
te komunikabide horiek?

Eta orain Europara datoz, hasi dira jada esaten  
hobe izango dugula eskuineko hauteslea ultraes-  
kuinekoa baino, bai Frantzian bai Alemanian,  
baita beste toki guztietan ere. Krisia garaitzeko  
modu egokiena, krisia eragin dutenei boza ema-  
tea dela sinestarazi nahi digute. Bitartean, non  
dago ezkerria? Errealitatetik kanpo. Jokoz kanpo.  
*Offside.* OFF. ■

## If I win



Edu Zelaieta  
IDAZLEA

rabazten badut, hemendik aurrera, goxoki bana  
ekarri beharko didazue zuek guztiok egunero.  
(Galtzen badut, ordea, nik ez dizuet ezertxo ere  
ekarriko, eta zuen garaipena kolokan jarriko dut).

Irabazten badut, neuk erabakiko dut hemendik  
aurrera zein jolasetan arituko garen parkean ema-  
ten ditugun arratsaldeetan. (Galtzen badut, ordea,  
lasai ikusiko dut unean-unean jolasteko gogorik  
ote dudanez edo ez).

Irabazten badut, nik esaten dudanez guzti-guz-  
tia egin beharko duzue hemendik aurrera, txintik  
atera gabe. (Galtzen badut, ordea, ez zait iruditzen  
kasu handiegirik egingo dizuedanik; ez naiz zue-  
kin fio).

Irabazten badut, eskolako motxila eraman  
beharko didazue hemendik aurrera, goizero eta  
arratsaldero, nik nahi dudanez zamarekin. (Galtzen  
badut, ordea, ez eskatu niri kontu xebrerik, ez  
baitituz zuen gauza pisutsuak nire bizkar noblean  
pausatuko).

“I will totally accept the results of the election...  
if I win”, esan zuen Trumpek. Eta, ongi dakigunez,  
irabazi egin du. Eta, aurretik adierazi bezala, hau-  
teskunde emaitzak onartu ditu. Eta, gutxi barru,  
txiki iruditzen omen zaion Etxe Zurian jarriko da  
maizter, jabe itxuran.

(Eta esan gabe esan diren horiek parentesi ar-  
tean irauango dute). ■

# Frustrazioaz

Xilabako finalaren goiza zen, euritsu baina bihotza zohardi, bage-nekielako arratsaldeak lau oren zoragarri iragateko aitzakia eskainiko zigula, ez baita maiz gertatzen euskaltzaleen komunio zenbait gertatzea. Euskaldunentzat eskusiboki antolatutako ekitaldiaren parada zen, behingoz.

Gaurko egunean dena behar delako elebidun. Bi hizkuntzatan. Batean erran oro, metodikoki, itzuliz. Bai herri mugimenduetan euskararako pausua ematen denean, bai egitura publikoetan hizkuntz politika minimoa eramatean denean eta zerbait euskaraz sortzen. Patologikoa dirudi, patetikoa da. Komunzki araua da afixak, programak, berripaperak, hitzartze publikoak, oro elebitasun orekatuan garatzea eta metodikoki itzultzea integralki. Aldika euskara txarrean berdin, gutxi inporta baitu, euskaraz irakurtzea militantzia hutsa baita. Hitz bakoitzari ematen zaio ekibalentea. Horrela erdaldunak ez du deus huts eginen. Hau da, edozein ekitaldi edo ekimeni buruzko informazioa, nahiz azken hau zuzendua izan euskaldunei bereziki, helduko zaio berari ere. Ez dut uste informazio doblez blai egotea gustuko zaionik nehoi, baina gustagarria da euskaldunei erraten zaiena jakitea. Aldiz, segur da ez zaiola erdaldunari neholako frustraziorik sortuko. Ez arrazoi, ez interesik piztuko euskalduntzeko. Gainera euskaldunak, alfertua balitz, jo lezake frantsesera. Eta zoritxarrez hala da. Elkarbizitza ez baita ardura pazifiko eta berdintasunean garatua.

Guk (euskalgintzak) ere elebitasuna defenditzen dugu, aldarrikatzen, pausuka, poliki, existitzeko aukera ematen digulako eta hortik gara gintezkeela sinesten baitugu, gardentasunaren izenean, errazago onartuak izateko, erabileran zerbait aitzinatzeke. Urraska



Bea Salaberri

IDAZLEA

@Beatxoa



Antton Olariaga

goazkeela, sekulan bizi al gara? Hatsa hartzen? Ala hatsantzen?

Ondorioa da metodikoki bi hizkuntzatan jarri afixa, berripaper eta diskurtsoak ikusteak ez diola erdaldunari neholako frustraziorik eragiten euskara ez jakiteaz; ez du deus, ia, galtzen eta jarrai dezake trankilki betiko diskurtso traumatikoarekin "*amatxi le parlait*" AEK-ko bidea sekulan hartu gabe. Harago, aberrazioak ere gerta daitezke: bertsoen itzultzea, dena azpi titulaztea. Niregatik hor da koska, gutxitan da zerbait bonusa hiztunontzat eta galera ez dakienarentzat horrela denean; hau da jokamolde eta politika bat, guregana gutxi hurbilarazten duena, frantsesari kalterik egin gabe euskara defendatu nahi duena, euskara zinez baloratu gabe, frantsesaren alde egiten duena.

Aldi oro, sumintzen gara honaino, Hegoaldeko inor menturatzen denean hizkuntzarena auzitan ezartzera. Larunbat goiz hartan guhaurrena zain genuen: *Sud Ouest* egunkarian eguneroko idazten du *Le piéton* famatuak. Nor xuxen? Ez dakigu. Anonimoa da eta auserdia handirako zirrikitua. Xilabaren goizean, pietuna penaturik zen justuki finalerako afixa euskara hutsean izateaz eta hortik erdaldunak ez gonbidatuak ospakizunera, trinko baina tinko, sektarismoa leporatuz. Bat-batean frustraturik beraz eta ondorioz dena pozoi.

Txikikeriak gehiago salatzen du. Ez baita sorpresa, iragar zitekeen. 2011 inkesta soziolinguistikoak agerian utzi zuen euskararen kontrako iritzien emendatzea: deskomplexatzea faltako zitzairen. Auskalo nolakoak jakingabe garen. Dena da bilakaera berean: tar-teka nago aitzinatzen garela, gibelka. Pietuna, gaizo puskila, ausartu zen baztertuari baztertzaila deitzera, ozenki; etorriko dira gehiago, ardi larrua erantzirik. Asteburuko pozaz gain, errabia ernatuz. ■



1925-1936

# MODERNITATE BAKAN BAT

“ARTE BERRIA”,  
DONOSTIAREN INGURUAN

2016ko AZAROAREN 5ETIK  
2017ko OTSAILAREN 5ERA

Jose Manuel Arpuzua Izenburuk gabe, c. 1931 | Iturria: Museo Universidad de Navarra

# STM

San Telmo Museoa



donostiakultura.com



ELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES  
DSS2016.EU

#STMmodernitatea

San Telmo Museoa. Zuloaga Plaza, 1.  
20003 Donostia | T. 943 481 580

[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)

Erakunde babesleak

Patrono pribatuak

Enpresa ongieleak

Enpresa laguntzaileak



EL DIARIO VASCO

berria



GARA

naiz:

argia



# ALTSASUKO ESKANDALUA

## Zer dago zirku mediatikoaren atzean?

“Justizia nahi dugu, atxilotuak askatu” izan da 20.000 lagunren aldarria Altsasun. Txalo hotsek soilik hautsi dute isiltasun ozena. Bi astetik gora egin dituzte urriaren 15eko borrokaren harira atxilotutako zazpi gazteek Madrilgo Soto del Real eta Alcalá de Henares espetxeetan, Sakanatik 400 kilometrotara. Hamar eta hamabost urte arteko kartzelarekin zigor daitezkeen delituak egozten dizkiete. Gertaerei testuingurua ematen saiatuko gara datozen lerroetan.



**Lander Arbelaitz**  
@larbelaitz

Urriaren 15ean, herriko feria eguneko goizaldeko 5:00etan herriko taberna batean kalez jantzitako bi guardia zibilen, beren bikoteen eta altsasuar talde baten arteko borrokaren ondorioz, agenteetako batek txorkatila lesionatuta amaitu du alde batean, eta ondorengo zazpi gazteak espetxeraturata daude beste aldean: Iñaki Abad, Oihan Arranz, Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea, Jokin Una-

muno, Aratz Urruzola eta Adur Ramirez. Hamar eta hamabost urte arteko kartzela zigorraren arriskua du bakoitzak.

Zer gertatu zen? Bertsioak kontrajarriak dira. Urriaren 15etik bertatik, Espainiako hedabide handi gehienek guardia zibilen eta beren bikotekideen aurka 50 bat lagun “erasoaz”, “enboskadaz” edo “lintxamentuaz” mintzatu dira. Altsasuarrek hurrengo eguneko

prentsaurrekoan adierazi zuten ez zela horrelakorik izan eta “agenteek taberna batean probokatutako” liskarra izan zela. Guardia zibiletako baten bikoteak gau horretan bertan zioen “erasotzailak” sei lagun zirela, Nafarroako Foruzaingoari egindako testigantzan. Gau horretan ere, bi lagun atxilotu zituzten Altsasun eta Foruzaingoak kargatu ere egin zuen atxilotuen askatasuna eska-



Auzia Espainiako Auzitegi Nazionaletik Nafarroako Auzitegira ekartzeko eskatu dute azaroaren 26an egindako manifestazio jendetsuan.

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

tzeko koartelaren aurrean bildu ziren herritarren aurka.

Albisteak berehala harrotu zituen hautsak eta hurrengo egunean Espainiako presidente Mariano Rajoyk ere adierazpenak egin zituen guardia zibilei “babes osoa” eskaintzeko. “Ez da in-punitaterik izango”, esan zuen. Alderdi politikoen artean, Sortu izan da lehen unetik atxilotuak babestu dituen alderdi bakarra. Nafarroako Gobernuak lehen unetik eraso gaitzesteaz gain, guardia zibilei babesa adierazteko urriaren 18ko kontzentrazioa kide bat bidali zuen. Gerora, Geroa Baik eta Nafarroako Podemosek atxilotetak gaitzetsi dituzte, nahiz eta azken alderdi horren Madrillgo egituretatik kontrako norabidean hitz egin izan duten, Guardia Zibilaren bertsio ofiziala bere eginez.

Lehen asteburu horretan manifestazioan 2.000 lagunetik gora bildu ziren “muntaia polizialik ez, utzi pakean Altsasu” lemapean. Espainiako hedabide

gehienek ordea, Covite ETaren biktimen elkarteko lau lagunek Guardia Zibilaren aldeko mezuak nola zabaldu zituzten bilakatu zuten albiste.

### Hamar eta hamabost urte arteko kartzela zigorrak?

Elur bola handitzen joan da eta “terrorismoagatik” epaituko dituzte. Nagusiki, Covitek, Auzitegi Nazionalak, hedabide espainiar nagusi gehienek eta alderdi unionistek defendatzen dute “terrorismo” delitua egozteaz gazte hauei. Guardia Zibilak berak hasiera batean bere txostenean jaso zuen ez zuela “terrorismo ekintza” gisa ikusten, izatekotan “gorroto delitua” ikusten zuen polizia erakunde espainarrak. Nafarroako Foruzaingoak ere ez zela ekintza terrorista izan zioen. Guardia Zibila terrorismoa egozte defendatzera ondoren igaro da. Azkenik, Iruñeko Auzitegian ikertu beharrean, Auzitegi Nazionalaren esku utzi dute, tesi horren gainean iker dezan.

Altsasuko bertsio ofiziala zalantzan jarri zuten herritarrak jopuntuan jarri zituen Auzitegi Nazionalak. Gauean bertan izandako bi atxilotetak salatu eta hedabideak zabaltzen ari ziren bertsio ofizialaren aurrean beren iritzia eman zuten herritarrak identifikatzeko eskatu zuen epaileak, baita Altsasuko gaztetxearen Twitter kontua kudeatzen zutenak ere.

Orotara hamabi gazte ikertzeko eskatu zion Poliziarri eta azkenik zazpi lagun-ek amaitu dute auzipetuta.

Borroka izan zen tabernaren kanpoal-dean falangearen behartu pintaketak agertu ziren manifestazioaren osteko astelehen goizean, azaroak 7. Egun berean, kalez jantzitako poliziak herrian zebiltzala salatu zuten. Azaroaren 8an “presio-egoera jasanezina eta latza” salatu zuten, herritar batzuek kalez jantzitako poliziekin talka izan ostean.

Kontestu berean, azaroaren 8an, Nafarroako Parlamentuan hainbat biktimak hartu zuten hitza. Tartean Oihan



IRANTZU PASTOR

Unai Ataunek bere esperientzia kontatu zuen. Guardia zibilek torturatu zutela eta epaileek ez zutela ikertu salatu zuen. Azkenean, Estrasburgok Espainiako Estataua zigortu zuen.

### Atxiloketak astelehen goizaldean

Poliziaren zerrendan agertu ziren hainbat gazte Iruñeko Auzitegian aurkeztu ziren beren kabuz. Hala ere, han ez zituzten hartu. Azaroaren 14an, zortzi gazte atxilotu zituzten, asko eskolara edo lanera bidean zirela. Madrileran eraman zituzten eta gauerako, sei prebentiboki espetxeratzeko agindu zuen Carmen Lamela epaileak “ihes egiteko arrisku nabarmena” aipatuz. Herrian “beldur giroa sortzea” egotzi die. Asteazken arratsaldean zazpigarren bat atxilotu zuten: Adur Ramirez, eta beste bat libre utzi zuten.

Eskandalu berezia eragin du Iñaki Abad giltzapean sartzeko motiboak: tabernan guardia zibilei eta hauen bikotekideei “begirada despektibo eta zuzenak egin izana”. Orain arte Espainiako Estatuan inor sekula ez dela horrelako arrazoi batengatik espetxeratua izan nabarmendu dute batzuek.

Atxiloketak justifikatzeko epaileak erabili duen beste argudioetako bat ondorengo da: Prensaurrekoan “Alde hemendik!” zioten pankartetan “ETAren ohiko logoa, bi puntako gezi okertsua” erabili izana. Bi puntako gezia *Alde Hemendik* kanpainako logoetako bat da,

### » Atxiloketak justifikatzeko epaileak esan zuen prensaurrekoan “Alde hemendik! ETAren ohiko logoa, bi puntako gezi okertsua” erabili zutela

ETAz harago, Euskal Herrian aldarrikapen hori egin nahi izan duen edozein kolektibok erabili du.

Iñaki Egaña historialariak mahai gainean jarri duenez, Euskadiko Ezkerra koalizioa osatu zuen EIA izan zen “*Que Se Vayan*” leloa lehen aldiz erabili zuena.

Oraingoz atxilotutako bederatzi lagunak mugimendu sozialekin konprometitutako gazte aktiboak direla irakurtzeko aukera izan dugu. Ez dira talde antolatatu biolento bateko kideak, Auzitegi Nazionalak halakorik iradokitzen duen arren. *Garak* Altsasuko iturriak aipatuz mahai gainean jarri duenez, talde heterogeneoa osatzen dute. Komunean dute gaztetxean sarri ibiltzea eta herri mugimenduetako ekimenak antolatzen aritzea edo horietan parte hartzea.

### Desmilitarizazio aldarria jopuntuan

Carmen Lamelak hasieratik baliatu du tabernako gertaera Ospa mugimenduko kideak atxilotzeko. Espainiako indar poliziaiek Euskal Herria utz dezatela es-

katzeko ekimenak Euskal Herriko hainbat herritan ere egiten dira *Alde Hemendik*, *Fan Hemendik* eta antzeko izenekin. Oñatin azken urteetan egin diren ekimenek sona handia lortu dute, adibidez, kuartela inguratuz 2015ean egindako giza kate jendetsuak.

Sakanan baina, aldarrikapen honen aldeko borrokan nabarmendu egin izan dira *Borroka Garaia Da* gunean gogoratu dutenez. 2001ean, adibidez, Sakana-ko 15 herritan herri kontsulta antolatu zuten “Guardia Zibilaren presentziaren egokitasunaz”, nahiz eta azkenean Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak bertan behera utzi eta ez zuten egin.

Norabide horretan, “Ospa Eguna” izan da azken bost urteetan aldarrikapena zabaltzeko egun nagusia. Jai giroan egun oso festa antolatzen dute herrian. Azken urteetan polemika eta tentsioa izan dira, 2014an herriko plazan ehunka lagunek guardia zibilaren sinbolo den *trikornio* erraldoia erre zutelako. Hurrengo urtean, 2015ean herriko plazan sartu eta Guardia Zibilari eta Espainiako militarrei erreferentzia egiten zieten hainbat karroza kendu zizkien Guardia Zibilak bortxaz.

Azken atxiloketen harira, Ospa mugimenduaren aurkako artikulu ugari idatzi dituzte Espainiako hedabide atzerakoienetan.

### “Dena ikusia nuela uste nuen”

Amaia Izko abokatuak hitz hauekin definitu du gertatzen ari dena: “Auzitegi Na-





EKAITZ ZILARMENDI

zionalen dena ikusia nuela uste nuen, baina astakeria juridiko hau ikusteko neukan. Epaiak ez du inongo funtsik”.

Nafarroako Gobernuak Barne Sailburu María José Beaumontek atxiloketen aurka hitz egin du. “Ez zen beharrezkoa atxiloketa hauek egitea, eta are gutxiago goizaldean”. Gobernuak presidentek Uxue Barkosek atxiloketak ez zirela beharrezkoak berretsi du. Nafarroako Ahal Dugu-ren iritziz, “larria” da gertakariak “terrorismoa” jotzea eta EH Bilduk espetxeratuak askatzeko eskatu du. UPNko heledun Javier Esparzak Guardia Zibilarren lana goretsi eta “eraso koldarra” gaitzetsi du.

Atxiloketak atsekabe eta haserre handia eragiten ari dira Altsasun eta Euskal Herriko sektore zabal batean. 7.600 biztanleko herria kriminalizatzen ari direla sentitu dute altsasuar askok.

Ezker abertzaleko kideetatik hasita, Nafarroako Ahal Dugu eta EAJren inurkur ordezkarari ugari mintzatu dira haserre. Alderdi Sozialistaren inguruko hainbat kidek ere aurkakotasuna adierazi dute (Altsasuko zinegotziek barne) nahiz eta PSNk (eta zer esanik ez PSOEk) hasieratik hobetsi duen bertsio ofiziala. Bi adibide jartzearen, hona Patxi Lopezen gobernu sailburu izan zen Blanca Urgelen iritzia: “Ez dakit zer gertatu zen Altsasun, baina badakit zer bait: Espainia zoroak jota dago, eta ez da sendabiderik ikusten inondik”. Baltasar Garzon epaileak dio ez dela terrorismo

*Ezkerreko argazkian, atxiloketak salatzen egiten zuten lehen manifestazioa irekitzen joan ziren momotxorroak.*

*Euskal Herriko hainbat herritan egiten dituzte ekimenak eskatuz Espainiako indar polizialak Euskal Herriko joateko. Goiko argazkian, Oñatiko ‘Fan Hemendik’ eguna, festa eta aldarrikapena uztartuz.*

gisaren epaitu behar. “Gehiegikeria ikusten dut. Badirudi batzuek ez dutela nahi hau amaitzea, eta hori oso arriskutsua da”.

### Posible al da terrorismo delitua egoztearen erakunde terroristarik gabe?

PPk eta PSOEk 2015ean onartutako Zigor Kodearen erreforma dago oinarrian. “Mendebaldeko kultura deitzen dioten horretako Zigor Kodeak gogorrena izango du Espainiako estatuak”, zioen orduan *Rebellion* gunean Endika Zulueta abokatu madrildarrak. Terrorismo kontzeptuaren mugak lausotu eta arriskutsuki zabaldu zituzten orduan. “Bake publikoa larriki aldatuz gero: terrorista”.

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Carmen Lamela epaileak Altsasuko borroka definizio horretan sartu du. Hala ere, penalista asko ez dago ados horrekin. *El País* egunkarian hainbaten iritziak jasoz idatzitako artikuluan adibidez, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide Penalean katedratikoa den Joan Queralekin mintzatu ziren. “Beste modu batera epaitu behar litzateke (...) Zigor

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

**Gasteizen**  
euskarazko hauek  
ez galdu



euskarazko hauek ez galdu

### Gozatu euskarazko liburategietan!

- **ARIZNABARRA**  
Baso magikoa  
Ipuin kontaketa. Eneko Etxebarrieta  
Abenduak 19, 18:00; 1-3 urte
- **HEGOALDE**  
Zientzilaria izan nahi dut  
Lantegia. Ciencia Divertida  
Abenduak 17, 13:00; 7-10 urte
- **JUDIMENDI**  
Jasone Osoro  
Idazleekin solasean  
Abenduak 14, 19:00; 18 urtetik gora
- **SALBURUA**  
Iraungorriko Marimiri  
Itzaleko antzerkia. Zurrunka teatroa  
Abenduak 18, 18:00; 5-10 urte

### Oihanez euskararen etxea

Euskal Herriko rock underground mugimendua 90ko hamarkadan  
Julen Azpitarte. Hitzaldia  
Abenduak 7, 19:00

**Le grand Cahier**  
Filmazpit. Zinema jatorrizko bertsioan euskaraz azpiztitulatu  
Abenduak 13; 18:45

**Ordago folk taldea**  
Aitzina folk jaialdia  
Abenduak 18, 19:00

**Hitz Adina Mintzo**  
Iris Orosia: Aragoiera  
Abenduak 21, 19:00

**Sortegiak**  
Antzerki lantegiaren amaierako erakustaldia  
Abenduak 28, 19:00

**Rafa Rueda**  
Eskilarapeko soinuak  
Formatu txikiko kontzertua  
Abenduak 29, 19:30

**LABOA GERTUTIK ERAKUSKETA**  
Laboaren belarria  
Ibon Rodriguez. Saio didaktikoa  
Abenduak 17, 19:00

**Laboa gertutik aurkezpen laburrak**  
Ana Gandara, Josune Albisu,  
Auritz Aurtentxe. Jardunaldiak  
Abenduak 20, 19:00

**Mikel Laboa. 1934-2008 dokumentala**  
Juan Kruz Igerabide. Ikus-entzunezkoa  
Abenduak 22, 19:00

**Euskararen biziberritzea:**  
marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen  
UEUren ikastaroa  
Izen-ematea: urtarrilaren 23ra arte

### Eguberrietako haur parkea

**Alegría-uhartea**  
Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra  
10:00-14:00etara eta 16:30-20:30

\_Maite duzun hura,  
euskaraz!



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Kodearen 573 artikulua hau zuhurtziaz aplikatu behar da, zentzu komunarekin gizarte demokratiko batean”.

### Sakanan polizia gehiegi

Euskal Herria da Europako Batasunean polizia dentsitate handiena duen lurraldea, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak, Espainiako eta Frantziako Barne Ministerioek eta Europako Eurostat Ikerketa Zentroak emandako datuen arabera. mila biztanleko sei polizia baino gehiago daude Euskal Herrian, Europar Batasunak gomendatzen duenetik urrun: milatik bi agente. Ez da ahaztu behar, 1980ko hamarkadatik soldaduska desagertu zen arte, Nafarroa “munduko hiriburu” izan zela soldaduskarekiko, armadarekiko eta militarismoarekiko intsumisioan, Sabino Cuadrak gogoratzen duenez.

Hego Euskal Herrian 40 bat etxe-koartel ditu Guardia Zibilak, irudi osoa egiteko, kopuru horri gehitu behar zaizkio Espainiako Poliziarenak, Espainiako armadarenak, Ertzaintzarenak eta Foruzaingoarenak. Ipar Euskal Herrian Frantziako poliziarenak eta Jendarmeriaren koartelak daude.

Sakanan hiru koartel daude: Foruzaingoarena bat eta Guardia Zibilarenak bi -horietako bat Altsasun-. Herriko sarreretan 2016ko lehen bederatzi hilabeteetan 450 kontrol egiten dituztela kontabilizatu eta askotan gehiegikeriak gertatu izan direla salatu dute behin baino gehiagotan herritarrek.

Gasteizko Gobernuak Euskal Kriminologia Institutuari eskatutako txosten batean, 1960 eta 2013 urteen artean torturak eta tratu txarrak sufritutako 4.000 herritarren testigantzak jaso dituzte. Testigantza horietan torturatza-

leen rankingeko lehen postuan Guardia Zibila dago. Egunotan Guardia Zibilak egindako giza eskubideen urraketak gogorazi ditu askok sarean.

Altsasuko Udalak ere asteotan Guardia Zibilak herrian eragiten duen “gehiegizko presioa” salatu du.

EAJko Unai Hualderen hitzok asko adierazten dute: “Feria asteburuan Altsasu Guardia Zibilak ‘hartu’ zuen Gaztako zerrenda balitz bezala”.

Gaia pil-pilean dela, azaroaren 17an, Leitzako kaleetan Espainiako Armadako kideak ibili dira, argazki eta bideoetan ikusteko aukera izan denez.

» **Tabernan guardia zibilei “begirada despektibo eta zuzenak” egin izana da Iñaki Abad kartzelaratzeko arrazoa**

### Ahotsa.info-ri eraso

UPNren adierazpen baten hariari tiraka, *El Mundo* eta Antena3 hedabideek Ahotsa.info herri hedabidearen aurkako informazioak zabaltu dituzte. Ahotsa Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegian Mozal Legea salatu duen lehen hedabidea da, besteak beste. Altsasuko gertaerak izan zirenetik, bertsio ofiziala zalantzan jartzen duten informazioak argitaratu izan ditu.

“Nafarroako Gobernuak Guardia Zibilaren aurkako webgune bat diruz laguntzen du”, idatzi zuen Fernando Lazaro kazetariak *El Mundoko* azalean. Ahotsako kazetari Miguel Angel Llamasek “Ahotsa.info

itxi nahi dute, alarma gorria piztu beharrean gaude” adierazi du Info7 irratiari. Sarean #GureAhotsa traola Espainiako Estatu mailan *Trending Topic* izatera heldu da, bestelako informazioa sarean jende askori zabalduz. Asteburuan, Iruñeko hainbat ordezkari politiko eta herri mugimendurekin bideo bat egin dute.

### Elkartasun mobilizazioak Euskal Herrian

Altsasuarrekin elkartasunez eta atxilotuak askatzeko eskatuz protesta ugari egiten ari dira egunotan Euskal Herrian. EH Bilduko Marian Beitialarrangoitiak adierazi du desmilitarizazioaren inguruko eztabaida politikoa kriminalizatzeke nahi ikusten dutela auzibidean.

Ekimenak egin dituzte ondorengo lekuetan gutxienez: Gasteizko Judimendiko gobernu militarrearen eta Sansomendiko Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean, Erromon, Arrasaten, Donostian, Iruñean, Tolosan, Azpeitian, Deustun, Erandion eta Santurtzin; manifestazioak egin dituzte Bilbon, Beasainen eta Leioako unibertsitatean. Euskal Herri osotik joanda, larunbatean Altsasun milaka lagun batu dira elkartasuna adierazi eta atxilotuak askatzeko eskatzera.

Nola amaituko da hau guztia? Zigor Kode berriaren muga lausotetan mugari bat jartzeko Euskal Herriko kasu bat erabiliko dutela dirudi. Espainiako ezker instituzionala isilik dagoen bitartean, aukera handiak daude, gerora irakurketa hauek Ebrotik behera aplikatzeko. Garai gogorak Altsasun. Alberto Barandiaran kazetariak txio batek ederki bildu du bidea: “Altsasuko herria inoiz baino batuago ikusten dut samin eta amorru kolektiboaren inguruan. Ea indar eraikitzaile bilakatzen den”. ■

The banner features three authors and their books:

- ZUBIKARAI SARIA**: 33 ezkil by Miren Gorrotxategi
- ALSINA**: Xabier Mendiguren Elizegi
- TRILOGIA HIPERLABURRA**: Karlos Linazasoro

www.elkarargialetxea.eus **elkar**

# Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta  
bertako produktuen  
kontsumoa sustatzen  
dugu.



[www.eroski.es](http://www.eroski.es)



zurekin

# Harpidetza eredu berria



## INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

ARGIA iritsi dadin Euskal Herrian gertatzen diren gai gehiagori jarraipena egitera eta jende gehiagori ahotsa ematera, proiektua gehiago indartu nahi dugun jendea bagara.

Nola indartzen dugu ARGIA? Ekarpen ekonomikoa egingo duen jende gehiago lortuta eta norberak, bere aukeren barnean, ahalik gehien jarrita. Diru ekarpen horiek zuzenean proiektura bideratzen ditugu: langile guztiok soldata bera dugu eta enpresaren urteko emaitza ekonomikoak proiektuan berrinbertitzen ditugu.

Jendearen babes ekonomikoa handitzeko, gure gurea den harpidetza eredu egokitu dugu eraikitzen ari garen mundura, gure betiko logika eta balioei eutsiz.



“Harpidetza sistema berri bat, produktuari lotutako prezio zehatz bat gabe? Bakoitzak ahal duena jarriz eta nahi duena jasoz? ARGIAko hauek burutik jota daude”, entzun diogu bati baino gehiagori.

Logika kapitalistatik irteten dela produktuen prezioak alboratu eta proiektuaren atxikimendua bilatzea? Jasotzen duzun produktua eta egiten duzun ekarpen ekonomikoa bereiztea? Jendeari ahal duena ordaintzeko aukera ematea? Bada bai, baina ARGIA proiektua ia ehun urtean garatu bada, ez da logika kapitalistari esker izan. Dirutan ordain ezinak diren balioak bultzatzeko gure dirua jartzen dugun jendeari esker iritsi gara hona. Alde horretatik ez dakar ezer berririk. Zein da gakoa, orduan? Dirua jartzeko motiboak argiago erakustea eta ekarpen denak hartzea: gehiago eman nahi dutenena eta gutxi eman dezaketena. Proiektu honek merezi duela uste dugunok, oraintxe dugu ARGIA indartzeko aukera.

### **Betiko logika eta jendea, gaurko proiektua**

“Gu betidanik gara harpidedunak, eh!”, edo “bazkidetza egin berri dut” edo “zu ere ARGIAkoa zara?”... bakoitzak bere hitzekin adierazten du ARGIA proiektua martxan egon dadin dirua jartzen duela. Inplikatzeko dela.

1980tik ARGIAren biziraupen modua izan da astekaria eta *Larrun* hilabetekaria jasotzearen truke herritarrek urteko kuota ordaintzea.

Urteekin, asko aniztu dira ARGIAk egiten dituen kazetaritza lanak, ordea: webgunean egunerokoari lotutako informazioa lantzeaz gain, eduki guztiak jartzen ditugu libre eta doan euskarazko lanak ahalik gehien zabaldu daitezen; sare sozialetan bizi ari gara eta hortik gazteak eta irakurle berriak etortzea lortzen ari gara; Interneten euskarazko ikus-entzunezko lanen bildumarik handiena (2.100 bideotik gora) ari gara jartzen herritarrok erraz topatu ditza-gun; bi astez behin ingelesera itzuli eta zabaltzen dugu gure erreportajeetako bat Euskal Herriaren berri Euskal Herri-tik eman dadin (agentzia handien menpekotasunik gabe)...

ARGIAren balioak sustatzeko egiten diren lan horiek denek zer dakarte? ARGIAk herritarren eta euskararen onurarako egiten dituen lan asko ez di-

rela merkatuaren legeetan prezioa duten “produktuak”. Eta bestetik, badirela ARGIAk egiten dituen lan horiek baloratzen dituzten eta ekarpen ekonomikoa egin nahi duten lagunak, papereko edukirik jaso gabe.

Nola egokitu betidanik dugun harpidetza eredu egoera berri honetara?

Harpidetza muinari eutsita. Alegia, ulertuta ARGIA proiektu osoa dela gure ekarpen ekonomikoarekin eusten duguna. Beraz, orain arte astekariaren prezioari lotua egon den harpidetza kuota, aurrerantzean proiektuari egongo da lotua. Astekaria etxean jaso edo ez, alegia, “harpide” izan edo ez, ARGIA proiektuaren alde dirua jartzen dugun denak gara ARGIAkoak: “ARGIA jendea”, Xamarren “euskara jendea”-ri keinu egingez.

### **Zenbat jarri behar dut orduan? Bakoitzak bere erako parte-hartzea**

Lasai, sozio estimatua. Zuk ezer jakinarazten ez diguzun artean, beti bezalaxe mantenduko dugu harremana: urtean 148 euro jarri (alegia, hilean 12 euro irteten da) eta astero astekaria, hileroko *Larrun* eta otsaila hasieran *Gakoak* urtekaria jasoko dituzu etxean -80 euro jartzen dutenek hamabostero jasotzen dute astekaria, eta 42 euro jartzen dutenek hileroko-.

Horrela nahi dugunok, ordea, orain dugu aukera ARGIA komunikazio proiektuari ematen dioguna eta bertatik jasotzen duguna gure bizimodura egokitzeko. ARGIAk astekariarekin batera egiten dituen beste kazetaritza lan horiek eta betetzen dituen funtzio horiek indartzeko, zer emateko prest dago norbera? Eta zer da ARGIAtik norberak gustura jasotzen duena? dena? astekaria? *Larrun* eta *Gakoak*? Interneta aski?...

### **Elkartasun oinarria: Betidanikoa**

Ez dira garairik xamurrenak. Asko eta asko dira azken urteetan hau esan dигuten gazteak: “Nire lehenengo soldatarekin ARGIAko harpidetza egingo dut”. ARGIAren beti ahalegindu gara egoera ekonomiko zailenean dauden herritarrek irakurtzeko modua izan dezaten. Badakigu jendeak eusten duela jendea momentu zailetan. Eta bizitzan badirela hartzeko eta emateko garaiak. Denok nahi dugu ahalik eta gazte gehienek ARGIA irakurtzea, biharko egunean eurek ere beren ekarpenarekin ARGIA

proiektua eutsi dezaten. Eta denok ados egongo gara, urteetan bere ekarpenarekin ARGIA proiektua eutsi dutenak ezin ditugula ARGIAtik kanpo utzi, lan-gabezia geratu direlako edo larrialdi ekonomiko bat duten orduko -gaur gaurkoz, egoera ekonomikoagatik harpidetza eten beharrean aurkitu diren urte askotako zenbait kideri, urtebeteko harpidetza doan bidaltzen ari gara-.

Konfiantza da harremanen, eman eta hartuaren oinarria. Honezkerok ezagutzen dugu elkar eta konfiantza dugu, bakoitzak ARGIA baloratzen duen moduko ahalegina egingo duela, diru ekarpena egiterakoan. Badakigu zintzo eta arduaz jokatzeko dugula ARGIA proiektuari eusteko ekarpen ekonomikoa egiten dugunok. Azken pagotxaren bila dabilenak, aspalditik du Interneten dena doan. Proiektu honetan dirua jarriko duen jende gehiago lortzea, eta norberak bere aukeren barnean ahalik gehien jartzea da ARGIAren helburua. Horrela, egun heltzen ez garen eremu eta gaietara heltzeko bitartekoak izango ditugulako.

### **Informazio gardena, konfiantzaren oinarria**

ARGIA indartzeko jendeak konfiantza eta dirua jar dezaten, gakoa dira, noski, etengabe ahalik eta kazetaritza lanik onena egitea, eta bestetik, jendeari argi komunikatzea berak jarri duen diru horri esker zer egitea lortu dugun. Astero Komunitatea orrian Itaso Zubiriak kontatzen du ARGIAren zer egiten ari garen, nola eta zergatik. [www.argia.eus-en](http://www.argia.eus-en) ARGIAren *barrenak* blogean ikus dezakezu noiznahi.

Horrez gain, ARGIAkook urtero gutun bidez jasoko dugu egindako lanen eta diru kontuen berri. Eta edozein galdera duzula, zuzenean jo dezakezu hona: 943371545 zenbakira deituta (Iraitz Agirrek bideratzen ditu ARGIAkoon arteko harremanak) edo [harpide@argia.eus](mailto:harpide@argia.eus)-era idatzita.

### **ARGIAren indarra jendea da**

Oso pozik gaude azken urteetan gero eta ARGIAko jende gehiago garelako. ARGIA gora doa. ARGIA indartsu egiten duena, bere oinarri soziala da. Jendea. Astekaria zenbat eta esku gehiagotatik pasa, sare sozialetan zenbat eta artikulua gehiago partekatu, tabernako elkarrizketetan zenbat eta gehiagotan aipatu,

## AZKEN IKERKETAREN ARABERA, ARGIA DA KALITATE HANDIENA DUEN HEDABIDEA, PAREKIDEENA ETA HERRITARREI AHOTSA GEHIEN EMATEN DIENA

EHuko irakasle Maria González Gorosarrik eginiko albisteen kalitateari buruzko ikerketak Euskadi Irratia, ETB1, *Berria* eta ARGIA aztertu ditu, 2016ko martxoaren amaieratik maiatzaren erdialdera bitarte egindako kazetaritza lanak aztertuz (guztira, 340 albiste). Hona hemen, ikerketak ARGIAri buruz eman dituen hainbat ondorio:

### Astekaria

- Herri mugimenduak erakundeetako ordezkariak baino albiste gehiagoren protagonista dira (%25 eta %18,75).
- Emakumezko eta gizezko protagonisten arteko parekidetasun informatiboa agertzen duen hedabide bakarra da.
- Euskal Herria islatzeko ahalegin handia egiten du (%11,76) eta tokian tokiko informazioa modu nazionalean interpretatzen du (adibidez, "Gatika: herri euskalduna erdalduntzearen arazoak aztertzen").

### Argia.eus webgunea

- Herri mugimenduei eskainitako tartea erakundeetako ordezkariak hartzen dutenaren bikoitza da ia (%53,85 eta %30,77).
- Webgunea parekidetasun informatiboa ez du papereko edizioak bezain zorrotz zaindu eta emakume bakoitzeko bi gizon agertzen ditu. Hala ere, emakumeen agerpena ondoen zaintzen duen webgunea ez ezik (Eitb.eus-en ratioa 1-5koa zen eta Berria.eus-en, 1-16koa), gainerako hedabideetako produktu informatibo nagusien gaine-

rik ere geratzen jarraitzen du (Euskadi Irratian emakume bakoitzeko hiru gizon agertzen ditu; Etb1ek eta *Berriak*, sei).

### Astekariaren eta webgunearen indarguneak

- Informazioaren jatorriaren zehaztapena (informazio gardena eskaintzeko), gertaeretan oinarritutako albisteak, zehaztasun handiko tituluak, informazio sakona eta hainbat kausalitate azaltzen duena.
- Informazioaren sakontasunean, zazpi W-galderen erantzunak azaltzen dituzten albisteak paperezko edizioan %58,82 dira eta sarean, %46,15. Sareko ARGIAk kaleratutako informazioaren sakontasunak webgune guztiena (Eitb.eus-en, albisteen %4,45 eta Berria.eus-en, %16,67) eta hedabide guztiena ere gaintzen du (Euskadi Irratian, albisteen %8,69 dira; Etb1ean, %3,92; eta Berrian, %35,71).
- Bizpahiru ikuspegi ematen dituzten albisteak bertsio idatzian %41,18 dira eta, bertsio digitalean, %38,46. Berriro ere, ARGIAren Interneteko edizioak gainerako webguneak eta informazio-produktu nagusiak gaintzen ditu (Eitb.eus-en, %0; Berria.eus-en, %4,167; Euskadi Irratian, %13,04; Etb1ean, %1,96; eta Berrian, %28,57).
- Horrenbestez, kalitate-indizeak astekariko albisteei 6,63 puntu eman dizkie eta sarekoei, 6,36. Euskarazko hedabideek lortu dituzten puntuaziorik altuenak.

orduan eta eraginkorragoa da ARGIAren lana. Eta ARGIAren zenbat eta jende gehiagok jartzen dugun dirua, orduan eta indartsuagoa da proiektua: gauza gehiago eta hobeak egiteko gaitasuna irabazten dugu eta etor daitezkeen erasoaren aurrean hobe erantzun dezake. Horren adibide dugu Mozal Legea aplikatuz, Espainiako Estatuan lehen kazetariari (kasualitatez, ARGIAkoa) jarritako isuna. Isuna ez ordaintzea eta lege

injustu eta ez-legitimo hau epaitegietan ere borrokatzea erabaki dugu. Horrelako erasoaren aurrean ARGIAren indarra jendea dela irudikatzen duelako, azal hori poster eginda jasoko dugu ARGIAko guztiok, Durangoko Azokan.

Beraz, inguruan ARGIA zaleren bat badugu, oraintxe du ARGIAkoa egiteko garaia. Bere ahalekin neurriko ekarpena eginez, bere gustuko formatua jasoz. Durangora bazatuz, pasa ARGIAren

*"ZENBAT GARA?  
LAU, BAT, HIRU,  
BOST, ZAZPI..."*

Orain arte astekariaren harpidetza, pertsona bakarraren izenean egon da. Baina badakigu, etxera iristen den astekari horren atzean, normalean pertsona bat baino gehiago izaten direla ARGIA irakurtzen dutenak, estimatzen dutenak, eusten dutenak, harpide sentitzen direnak. Kapitalismoaren logikan, ordaintzen duena da jabe, baina badakigu bizitzan, etxeko ekonomian bakoitzak bere ekarpena egiten duela, beti txanponetan egiten ez dena. Eta beraz, ARGIA etxeko kide bakarrak ordaintzen badu ere, ekonomikoki etxeko kide gehiagok eusten diotela ekarpen horri.

Eredu aldaketa hau baliatu nahi dugu, jakiteko zein den ARGIAren benetako oinarri soziala. Zenbat jende eusten du ekonomikoki ARGIA? Zenbat gara?

Ariketa zintzoki egitea estimatuko genizueke, ez dugu zenbaki puzturik bilatzen. Ekarpenean ekonomikoki bakoitzaren atzean zenbat jende gauden jakin nahi dugu. Proiektua zenbaten artean eusten dugun. Oraingoan, zenbat helbidetara bidaltzen dugun dakigu. Oinarri soziala ezagutu orduko publiko egingo dugu datua. Baita guztien artean zenbat diru osatzen dugun ere.

Mesedez, sartu [www.argia.eus](http://www.argia.eus)-eko "Egin ARGIAkoa" atalean eta bete datu hori. Edo bidali postaz idatzita, hurrengo astean astekariarekin batera jasoko duzun orria.

### Elkarte eta eragileak ere, noski

ARGIAkoak egin daitezke, noski, eragile, elkarte, ikastetxe, lantoki, erakundeak... ere.

mahaitik, posterraren aitzakian. Elkar ezagutzeko desiatzen gaude.

ARGIAren indarra jendea da. Eta jendeontzat, informazio kritikoa jasotzeko, egiten diren ekimen interesgarrien berrizateko, mundutik datorren albiste zurrunbiloaren aurrean balio batzuen gainean kokatzeko, eguneroko bizitzatik balio horiek bultzatzeko, txikitik eragiteko... ARGIA tresna dugu. Indartu nahi, indartzen gaituena? ■

# ARGIA INDARTZEN DUGUNOK ZER INDARTZEN DUGU?

## Kazetaritza independentea

Informazio burujabetza da gainerako burujabetzen oinarria, gure erabakiak dugun informazioaren arabera hartzen baititugu. Kazetaritza independentea da demokratiaren oinarria.

Ez banketxerik, ez alderdi politikorik, ez enpresa indartsurik... ARGIAkoak dira, bere diru ekarpenaren bidez, ARGIAren diru-iturri nagusia, eta langileak dira enpresaren jabeak.

Balioak dira gure oinarria eta balio horietan kokatzen dugu gure lan guztia. Balio horiek dira, besteak beste, independentzia, euskaltzaletasuna, lurraldetasuna, feminismoa, justizia soziala, ekonomia soziala...

## Euskara

Euskarazko komunikabideei esker pentsatzen dugu mundua euskaraz. Hizkuntza garatzeko eta gizarteratzeko tresna indartsuenak dira.

Euskara teknologia berrietan puntan egon dadin izan ginen lehenetarikoa Interneten webgunea jartzen (1997an), Twitter euskaratzeko kanpaina abiatu genuen, sare sozialetan bizi gabiltza... Euskara gaiei etengabeko jarraipena egiten diegu eta euskarari buruzko diskurtso propioa sortzen ari gara.

## Berdintasun erreala


Gizartearen erdiari dagokion lekua ematen ahalegintzen gara, hedabideok sortzen dugun iruditegian eta gaien hierarkian.

Gaietan, pertsonaietan, argazkietan eta lan antolaketan ahalegintzen gara parekidetasun irizpideei eusten eta ohiko rol eta ikuspegi sexistak gainditzen.

## Euskal Herria

ARGIArekin Euskal Herri osoko herritarrak lotzen ditugu etengabe hizkuntza, gai eta erreferente berberen inguruan.

Zazpi lurraldeko Euskal Herria da gure eremua eta independentziaren aldekoak gara. Gaiak lantzerakoan administrazio bakoitzeko datuak biltzen ahalegintzen gara. Beste batzuetan, gaiak herri bakarrean kokatzen ditugu, errealtate zehatz hori Euskal Herri osoarentzat adierazgarri izan daitekeela ulertzen baitugu. Euskal Herriko herri denak dira gure herri, ez lo egiten dugun hori soilik.



## Bizitza baliotsua

Bizitza da gure balioen zentroa, ez dirua.

Gure balioen arabera bizi gara ahalik gehien eta etengabe. Txikitik eragiten!

Guztion ongizatea, justizia soziala, ingurumena eta osasuna lehenesten ditugu, kapitalismoak hauek zapalduz dena diru etekinetan baloratzen duen bitartean. Gai hauei jarraipen etengabea egiten diegu eta enfokatzekoan gure kokapena ARGIA da.

## Herri mugimenduak

Herri mugimenduen kalitatezko informazioa behar dute lana egiteko. Eta herri mugimenduen egiten duten lanaren berri

herritarrengana iristea behar dute, gehiago eragiteko.

Edozein gairi buruzko informazioa biltzerakoan, lehen mailako iturriak dira herri mugimenduak, jakintza handia biltzen baitute, baita aurrera begirako ikuspegia ere. Eta herri mugimenduen egiten dituzten ekintza garrantzitsuei ahalik jarraipen komunikatiborik onena egiten saiatzen gara, kazetaritza egiteko modu berriak bilatuz, eta batzuetan informazio iturri nagusietakoa izatea lortu dugu (Herri Harresiak, Abortu Eskubidearen Aldeko manifestazioa, Gipuzkoa Zutik...).

## Ekonomia soziala

ARGIAk urtero milioi 1 euro inguru ondasun sortzen du euskal gizartean eta aberastasunaren banaketa praktikara eramaten du (langile guztiok dugu oinarrizko soldata bera).

ARGIA komunikazio proiektuaren eguneroko lana, ekonomia sozialeko SAL enpresa egituraren dago antolatua. Langileok gara jabeak. Bazkidetza borondatezkoa da eta 25 langiletik 22 gara bazkideak. Erabaki nagusiak bazkideen batzarrean hartzen ditugu: zer proiektu martxan jarri, lan baldintzak, diru sarrera eta gastuei buruzko erabakiak...

ARGIA komunikazio proiektuari oinarrizko azpiegitura emateko, beste enpresa batzuk sortu dira bertatik, eta guztiok Ametzagaina Taldea sortzen dugu. Enpresa hauen laguntzarik gabe, ARGIAren ahalmena askoz txikiagoa litzateke: Adur-ek azpiegitura informatikoa bermatzen dio ARGIAri. Antza-k diseinua eta inprimaketa egiten dio. Eta lametza-k webgunea garatzen du.

# Hondarribia

## HIZTEGI HERRIKOIA OSATZEKO FACEBOOKIDEEKIN BLAGAN

*Kapen, blagan, billaba, txotxua* hitz arruntak dira Hondarribian. Herriko hitz eta esamoldeak, ohikoak eta ez hain ezagunak, biltzen hasi zen Ketxus Ponce, jolas modura, eta 800 baino gehiago ditu dagoeneko. Facebookeko *Hondarribiko hitzak* orrialdean osatzen doa Hondarribiko euskararen artxiboa, jendeak sare sozialean bertan egiten dituen ekarpen, ñabardura eta eztabaidek aberastua.



**Mikel Garcia Idiakez**

@mikelgi

*Argurian* (tertulian) izan gara Ketxus Poncerekin, *egin poroiuan* (ekinaren ekinez) lortu duen bilduma *txol* (oso) oparoaz mintzatzeko, erronkari urte luzez *itxeki* (eutsi) baitio hondarribiarak. Bide batez, ikusi duzun moduan, herriko hitz ugari ikasi ditugu berarekin. Fernando Artola “Bordari” idazle hondarribiarrak herriko euskararen inguruan egindako hitzaldi batetik hartutako adibideekin, hitzak eta haien esanahiak argitaratzen hasi zen *Hondarribia* herri aldizkaria, 80ko hamarkada bukaeran. Ponceren eta lagun baten interesa piztu zuen ariketak, eta erabaki zuten inguruko mintzaira arretaz aditzea: “Behin belarria horretara jarrita, bestela oharkabean pasako litzazkidakkeen hitz berezi asko entzuten hasi nintzen, edozein esparrutan: bizilagunen bileran, kaleko poteoan, Txomin Artolaren kantetan, jende helduari honetaz eta hartaz galdetuta... Iturriak asko ziren eta nik dena koadernoan idazten nuen. Zertan ari nintzen zabaldu zenean, dozena bat herrikide hasi zitzaizkidan hitzak eta esaldiak proposatzen, posta bidez, ahoz... Jesus Mari Mendizabal ‘Bizargorri’ idazleak ere, nire Euskara irakasle izandakoak, ariketa bera egin zuen Hondarribira bizitzera etorri zenean; bere zerrenda pasa zidan eta nirera gehitu nuen. Pixkanaka, altxor handi bat biltzen ari nintzela konturatu nintzen”.

Eta altxorra partekatzeke, 2009 urte inguruan orria sortu zuen Facebooken. Pilatzen doan material guztia erregistratuta uzten joateko modua da; “800 hitz baino gehiago ditut, baina hau amaigabea da”. Eta aldi berean, 1.620 jarraitzailetik gora ditu Facebooken, hiztegi herrikoia osatzen eta fintzen laguntzen diotenak. *Hondarribiko hitzak* da orriaren izena, herria bera izendatzeko aldaera bat baino gehiago baitute bertan: “Hondarribi eta Hondarbi dira ohikoenak, nik neuk biak erabiltzen ditut, testuinguruaren arabera. Batzuek ez dute Hondarbi gustuko, garai batean irundarrek hondarribiarrak iraintzeko erabiltzen zutela argudiatuta, baina herritarrek izena bere egin badute, eztabaida antzua iruditzen zait. Guri bikingo deitzea ere iraina zen aspaldi, eta gaur egun hondarribiar ugarik dio bikingoa dela, harro asko”.

Batzuetan aktiboago dago Facebookeko orria, bestetan lo, Ketxus Poncek berak eskaini diezaiokeen denboraren arabera. Orain, gogotsu ari da eta hitz gehiago jarri berri ditu sare sozialean, Ahotsak.eus webguneko elkarriketetan entzundakoak. Hitza idazten du, alboan argazki bat eta definizioa gaineratzen ditu lagungarri, eta baita hitza bere testuinguruan kokatzeko esaldiren bat edo beste ere. Jendeak iruzkinak uzten ditu, haien etxean hitzak beste ahoskera bat

duela, halako esamoldetan erabiltzen dutela, inguruan beste adieraren batekin entzun dutela... “Lehenago adibidez *arrastola* (eskuarea) jarri nuen, eta Facebookide batek erantzun zidan ezetz, arrastelua dela. Halakoetatik ikasi dut iturria apuntatzearen garrantzia, jakiteko entzundako edo irakurritako hitza nork, non, zein testuinguruan... erabili duen. Orain hitzaren ondoan iturria idazten dut, eta horrek sinesgarritasuna ematen dio jasotakoari, bestela nik asmatua dela eman dezake”.

Jakina, proposamenak ere luzatzen dituzte Facebookeko jarraitzaileek. Berriki egindakoak esaterako, *zarragoia* (etengabeko euria adierazteko, euri zarragoia) eta *itxurantea* (ahoberoa). Poncek kontatu digu internetera hitz berriak igotzeaz gain aspaldi jarritakoak ere berreskuratzen dituela, eta interesgarria dela emaitza, hitz beraren bueltan beste jende batekin sortzen delako hartu-eman.

### Ligatu ere, arrantzaleen erara

Hondarribikoa hiztegi aberatsa dela dio Poncek. Herri barruan bertan, baserritarren artean edo arrantzaleen artean hitz eta esamolde ezberdinak baliatzen zituzten (portuarrak, baserritarak eta kaletarrak dira herriko hiru komunitate historikoak). Ziurrenik, dena den, itsasoari eta arrantzari lotutako hizte-





“Behin belarria horretara jarrita, bestela oharkabeen pasako litzaizkidakeen hitz berezi asko entzuten hasi nintzen, edozein esparaturan: bizilagunen bileran, kaleko potean, Txomin Artolaren kantetan... Pixkanaka, altxor handi bat biltzen ari nintzela konturatu nintzen”, dio Kexus Poncek.

gia izango da emankorrena kostako herri honetan. Olatu motak izendatzeko hitz ugari dituzte (*bagu* olatu luzerako, *amuitza* itsaso erdian puskatzen den olaturako, *aroi* *gotti*, *aroi* *beti* marea-aren gorabeherak adierazteko, *atrapaza*...). Lokuzioak ere horren lekuko dira. Ligatzeko adibidez, *apasta bota*; *beta bota*; *pelajikua erabili* (denekin saiatzen ari bada); *sonarra markatu* (neskatan/mutiletan egiteko asmoz dagoela sumatzen bazaio); *ezpalarta eman* (orka da

ezpalarta, eta inguruokoa uxatzen dituela adierazteko erabiltzen da esamoldea)... Itxuraz ari bagara, *alfako arraina* (itsusia); *berberina* (polita); *txopa*, ipurdiaz hitz egiteko; *kroka* eta *ttapikua* (sudur okerra eta sudur luzea)... Parrandaren inguruan, *bakailaoa jan dik/n* (erraz edan); *perloi egosi begiak* (parranda ondorengo begiak)...

Arrantza mekanizatu eta aldatu egin da, lanabes ugari desagertu, eta ondorioz horiek izendatzeko hitz asko galdu egin

dira urteekin. Berdin eguraldiaren kasuan: bospasei haize mota eta beste bospasei euri barietate atzeman ditu Poncek, arrantzaleek eguraldiarekiko duten menpekotasuna handia baita. “Ilargiari, goizeko eta gaueko koloreari, haizeari... adi egoten ziren eta hori guztia izendatzeko modua zuten; gaur egun patrioiak eguraldi-iragarpena kontsultatzen du eta badaki itsasora atera daitekeen edo ez. Garai bakoitzeko bizimodu eta ohiturek baldintzatzen dute gure hizkera”.

“Arrastola (eskuarea) jarri nuen Facebooken, eta arrastelua dela erantzun zidaten. Halakoetatik ikasi dut iturria apuntatzearen garrantzia, hitza nork, non, zein testuingurutan... erabili duen”

“Ilargiari, goizeko koloreari, haizeari... adi zeuden arrantzaleak eta hori guztia izendatzeko modua zuten; gaur egun eguraldi-iragarpena kontsultatzen dute. Garai bakoitzeko bizimoduak baldintzatzen du hizkera”

Zein da, bada, bizi dugun garaiko hizkera? “Lehen arrantzatik, itsasotik hartutako hiztegiarekin moldatzen bazituzten esamolde asko, orain bestelakoak dira iturri eta erreferentziak. Globalizazioaren ondorioz, esaterako, ‘berba’ entzungo dugu Hondarribiko kaleetan, edo erdararen eragina ere handia da egungo jergan (ze guai)”. Dena den, herri hizkera galbidean nabari du: “Nire pertzepzioa da beste hainbat herritan umeek bertako euskararen berezitasun dezente mantentzen dituztela, baina Hondarribian orokorrean euskara batua gailendu dela, beste leku batzuetan baino gehiago”.

#### “Euskara apaizatua”, edo hizkuntza kaletarra vs akademiko

Modu amateurrean ari da Ketxus Ponce, baina Hondarribiko hizkeraren inguruan ikerketa linguistiko sakonagoa egin nahi duenarentzat abiapuntu aproposa izan daiteke bere bilduma. Daukan materiala liburu batean argitaratzekotan, modu herrikoian egin nahiko lukeela dio, Facebooken daraman dinamika-

ren antzera. “Iruditzen zait, batzuetan janzkera akademikoak urrundu egiten duela hizkuntzalaritza herriarengandik. Kaleko hizkuntzak talka egiten du sarri akademikoek ‘agintzen’ duten hizkuntzarekin. Herrikide bati entzun nion moduan, *euskara apaizatua* da hori. Pelikuletan ere ikusten da oraindik, erdaraz kaleko erregistrora jotzen duten bitartean, euskaraz oso hizkuntza teknikoak darabilte maiz”.

Otu zaigu, ez ote litzatekeen interesgarria izango Euskal Herri osoa aintzat hartuko lukeen *Hondarribiko hitzak* gisako ekimena sortzea, herri bakoitzean gauza bera izendatzeko darabiltzaten hitz eta esaldiak konparatu eta partekatzeko. Ezagutza handitzeko baliagarria den heinean, ongi etorria litzateke, erantzun digu Poncek. Beste hainbat herritan antzeko egitasmoak badirela gehitu du, eta soilik Hondarribian erabiltako hitzak zirela pentsatu arren, gero ohartu izan dela beste zenbait tokitan hitz bera darabilte, geografikoki urrun egonda ere. Kostako herrietan esaterako, arrantzale ofizioari lotuta hainbat hitz komun dituzte.

# Euskaraz gara!



**Barakaldoko Udala**  
**Euskararen**  
**Egunarekin bat**

# Euskararen indarra

# oinezko barakaldarra

**“EUSKAL HARRIA - EUSKARA HERRIA” MUSIKA-IKUSKIZUNA**  
**ABENDUAK 1 (20:00), BARAKALDO ANTZOKIAN · SARRERA LIBREA. BAZATOZ?**

“Nire pertzepzioa da beste hainbat herritan umeek bertako euskararen berezitasun dezente mantentzen dituztela, baina Hondarribian orokorrean euskara batua gailendu dela”

“Batzuetan janzkera akademikoak urrundu egiten du hizkuntzalaritza herriarengandik. Kaleko hizkuntzak talka egiten du sarri akademikoek ‘agintzen’ duten hizkuntzarekin”



**“Kristala txetu zuen eta ponpoianak arittu zituen”**

Solasaldia amaitu aurretik, Hondarribiko euskararen adibide gehiago eskatu dizkiogu Ponceri. Hona batzuk: iraintzeko, *zurkittua* (zekena, zikoitza), *akettua* (gizon argala, ahula, eskasa), *motzotia* (gizon txiki potokoa), *lanbasa* (emakume alferra). Erabilienean artean, *txetu* (apurtu edo nekatu, testuinguruaren arabera), *kapen egin* (uretara buruz bota), *maxina* (edozein tresna izendatzeko hitz komodina, hanka tarteko maxina bizikleta litzateke), *-kaka* (asko: diru-kaka, bero-kaka, diru asko, bero handia), *txafo* (libre), *andare* (alde egin),

Ezkerreko argazkiarekin batera, hala dio ‘Hondarribiko hitzak’ orrian: “TTIRRITTA. Kilkerra. “Kri kri kri kri... laster ttugu ttirritak kantan”.

*billaba* (bihurria), *zakurra baino* (gehiegi adierazteko: “Patata hau zakurra baino gatzatuagoa dago”), *txotxua* (marinel hasiberria), *susara joa* (berotuta)... Baserri munduarekin zerikusia dutenak, *goiz oilanda* (emakume parrandazalea), *behiak eragotzea* (askara eramatea), *eia* (ukuilua), *txarrantxa* (txerriak garbitzeko alanbrezko zepiloa)... Frantses jatorridunak, *ataulia* (oturuntza), *arribada* (itsasotik, parrandatik... buelta), *serra* (saihestu, norabidea aldatu). Aditzei lotuta, *-ketu* (*eginketu*, *fanketu*, egin izan dut, joan izan naiz) edota *nugun* (genuen). *Atxamarta* (trastea), *xarpota* (torlojuja), *lohia* (giro astuna eta nahasia adierazteko; “jende lohia, atzo tabernan”), *pitxindorra* (begitxindorra), *kanttala* (izkina, kantoia), *ponpoianak arittu* (sekulako errieta), *axexatu* (xaxatu), *bolari* (pikutara bidali), *sos frantsek ez* (dirurik ez). Eta zure herrian, nola esaten da...? ■

**GOIZMEK, S.L.**  
MEKANIZATUAK

© 946 841 413 / 680 601 415  
Okamikako Industrialdea, 3A  
48289 Gizaburuaga  
BIZKAIA  
goizmek@goizmek.com

**MOYUA**  
HILETA ZERBITZUAK  
Zure momentu zailtarako

Tel.: 943783447 • 617442466  
mmoyua@telefonica.net  
Otañui Gotzaina kalea, 27 • Oñati

**Legazpiko Udala**  
Bat eginik. hazten goaz

**Elkarrekin bat eginik**

Legazpiko Udala • Euskara Zerbitzua  
euskara@legazpi.eus


**u d i m e eguna**  
udalerri dimeslarri irudimentsu maite euskalduna

**Abenduaren 3an DIMAN**

- 18:00. Abesbatzaren emanaldia.
- 18:15. Haurrek antzetzutako obra eta koreografia.
- 18:30. UDIME ekitaldia.
- 18:50. Abesbatzaren emanaldia.
- 19:00. Disko dantza saioa.
- 20:00. Herri kirolak.
- 22:00. Erromeria, Ezten Giro taldearekin.



# EUSKARA zure aukera



[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

**EUSKARA**  
kolore bizia!



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

## Alfredo Lakuntza [MRA etxegileak kaltetua]



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Eider Madina Berasategi

@xaukenaxauk

# Goizetik gauera olio saltzaile bihurtu zen etxegilearen iruzurra

Alfredo Lakuntza Vicario naiz, 38 urteko iruindarra, eta beste hamalau lagunek bezala, dirutza galdu dut MRA Miguel Rico y Asociados Promocion S.L. enpresa etxegilearen erruz.

2011n etxebizitza babestua erosi nuen Iruñerriko Erripagaña auzoan. Urtebetera, langabezian gelditu eta etxea ordaindu ezinik ibiliko nintzela ikusita atzera egitea erabaki nuen, baina MRA taldeko higiezin enpresak ez zidan salerosketari uko egiten utzi.

Beste hainbat erosle egoera berean zeudela ikusita auzitara jo genuen. Epai-ketaren erabakia ezagutu artean bizilagun bakoitzak 30.000-40.000 euro ordaindu genituen sarrera gisa.

Iaz Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak hartutako erabakia gure aldekoa izan zen. Baina, etxebizitzaren kontratua bertan behera utzi eta MRA enpresari zorrak ordaintzeko eskaria egin zionean, hartzekodunen konkurtsoan sartu zen; filiala desagerrarazi eta ize nez aldatu zuen (Innoliva abizena gehituz), galerak eta ardurak saihesteko.

Oliba olioaren negozioan sartu da MRA enpresa, eta haien Iruñeko egoitzan, eraikuntza-enpresaren bulegoa zegoen lekuan, gaur egun olio botilak saltzen dituzte. Iraingarria da dirurik ez duela argudiatu duen enpresa batek inon diren zorrak utzi eta leku berean, langile berekin, beste negozio bat ireki eta ezer pasako ez balitz bezala jarraitzea.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzak diren heinean, Nafarroako Sustapen Departamentuak diru-laguntzak banatu zituen, baina ez erosleen artean, bai zik eta zuzenean MRARI emanda. Bada,

orain, Sustapen Sailak eskatzen digu diru hori bueltatzeko, atzeratutako interesen gaintu eta guzti. Hori gutxi balitz, Ogasun Departamentuak urte hauetako errenta aitortzean desgrabatutakoa ere eskatu digu.

Ate asko jo dugu laguntza eske, baina oharatu gara agintean daudenek ezer gutxi egiten dutela banketxe eta promotoreen aurka. Legea haien mesedetan erabiltzen da, ez herritarrak babesteko.

Gainera, jakin badakigu Nafarroako hainbat politikarik harremana izan duela enpresa talde horrekin. Esaterako, Luis Zarraluqui egungo UPNko parlamentari eta orduko Nafarroako Sustapen sailburuak ez zituen epaileen eta Arartekoaren eskariak aintzat hartu. Bada, Zarraluqui jauna MRARI zuzendari tekniko zen enpresa horri diru-laguntza publikoak eman zitzaizkionean.

Saldu gabeko etxeak banketxeen esku geratu dira, nahiz eta etxeen %20 guk ordaindua den. Hortaz, Nafarroako Gobernari eta Nasuvinza Etxebizitza Kudeaketarako Sozietate Publikoari bitartekari lanak egin ditzatela eskatu diegu. Eta etxebizitzak erostea posible denean,



Antzeko egoeran daudenei beraiekin harremanetan jartzeko dei egin die Alfredo Lakuntzak, horretarako sare sozialak baliatuz: Twitter (@MiguelRicoMRA) eta Facebook (MRA afectados).

eroslehentasun eta atzera-eskuratzeo eskubideak aplika ditzatela (10/2010 Foru Legeko 49. artikulua). Horrez gain, banketxeek etxebizitzak saltzen dituzten kasuetan sarrera gisa ordaindutakoa itzultzeko exijitzen dugu; etxebizitza sozialekin banketxeek etekinik atera ez dezaten.

*Aldaketaren Gobernuari* ere kritika egin behar diot, haiengandik beste jarri bat espero nuelako, eta ez haien aurka epai-ketetan jarraitu behar izatea.

Urte hauetan etxerik gabe egoteaz gain aurrezkiak galdu ditugu, alokairuan bizitzen egon gara eta, beraz, horren gastua ere gehitu behar zaio, hala nola, epaiketa eta abokatu-tan utzitako dirua eta denbora. Baina, batez ere, lau urtetan pasatako sufrimendua eta kezka azpimarratuko nituzke. ■

# Mizpirak udazkena itulan



TESTUA ETA ARGAZKIA:

**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Galtzen beheko barrena belaunetik txorkatila-eraztuna estaltzera eraman duen eguraldia etorri denetik kanpotik etxerako etorria ugaritu da. Galtza motzen sasoiaren etxetik kanporako joana gustukoagoa zen. Orain ere nik kanporako norabidea nahiago, baina uztak behartzen du barrurako bidea. Barrura zer ekarriak mugitzen gaitu, aro baita.

Gurera mizpirak ekartzen du itulan udazkena. Egoskor samarra da mizpiraren fruitua, *Mespilus germanica*. Ez du lurreratu nahi izaten mizpirondoak hostoak erantzi arte. Orduan bakarrak dira arbolaren adarjean, zeru urdinduen argi kontraren deigarri. Mizpira koxkorra narmentzen saiatzen bada ere ez dira, ez, berehalakoan, eskinosoa eta zozoa berari mokoka hasiko. Zer da mikatza erabat heldu gabeko mizpira! Heldutasuna muturrera eraman eta usteldu gabe umotzeko bi entzima hartzigarri ditu. Hotzaldi batek jotzen badu, entzimak suspertu eta mizpiraren mamia biguntzeko eta gozatzeko bidean jarriko dute. Gain-umotasunak hasia behar du jan ahal izateko. Orduan garatzen du

azukre gozoa mamian; saka-rosarik ez, baina glukosa eta fruktosa lepo. Sagarrak edo piku lehorrak edo bananak baino azukre gehiago du mizpirak. Orduan bai, orduan hegazti edo gasteropodo, denen gustuko da. Gasteropodo, bai, izan ere haizeteren batek adar harrotik jaulki eta lurrerarazten baditu, bare eta barraskiloek zuzen asko hartuko dute ustel punttua dutenenganako herrestabidea. Berde direnak geroxeagorako geratuko dira. Horiek jan ez ditzen, etxeratu badituzu, fruituak lehor eta zakar, ez zikoizteko hotzaldi bat eman. Egun bat edo bi izozkailura, gero bertan gozo.

Gu ere animalia izan eta sena erabat alferrik galdu gabea... Eta mizpirak gain-umotasunean ahosabaia betetzen.



*Mizpirak (Mespilus germanica) lurrean usteltzen.*

Jende gehienak, ordea, ez du mizpira ezagutzen, eta “ustelgintzaren” laudorioak entzunda, batek baino gehiagok goragalearen imintzioa egin izan dit. Ipularreko fruitua da mizpira, baztertua dugu. Mizpira aipatu eta jendeari erabat desberdina den beste fruitu bat dator- kio burura, mizpira japoniarra deitzen dena, *Eriobotrya japonica*. Saltokietan ikusten dutena... Baina hori beste sagar- doteigiko upela da. ■

## IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

**Kaixo Jakoba. baratzea txomin-belarrak irentsia daukat, hamaika aldiz jarri naiz balde batera landare honek sortzen dituen bulboak botatzen baina alferrik. Landare altuei arazo handirik ez die sortzen baina barazki baxuenei ez die hazten uzten. Zer egin nezake?**

**Asier Alcedo (Ortuella)**

Kaixo Asier. Txomin-belarra, Lekeitio-belarra, Bermeo-belarra, barbas-belarra, barrabasa, potox-belarra, potro-belarra... Zenbat izen ote ditu



JOHN TANN-CC BY

belar honek? Denak belar txarra edo gogaikarria dela adierazten dutenak. Izen zientifikoa *Oxalis latifolia* du. Oso zaila da baratzetik kentzea, erabat kentzea ezinezkoa dela esango

nuke. Herbizida kimikoak erabilia lurra erabat kutsatuko duzu eta denbora luze bertan sortutako ezer ezin jan. Rotabatorra da bere lagun handiena, aipatzen dituzun lurpeko erraboi txoak ebaki eta zabaltzen ditu. Nik uste dut barbasarekin ezikusiarrena egin behar dela eta ugari dagoen tokietan landare altuagoak izango direnak jarri eta tikiak jartzeko edo haziak egiteko lur garbia erabili.

*Txomin-belarra (Oxalis latifolia).*

UNAI ITURRIAGA ZUGAZA-ARTAZA, ALTZA PORRUZ:

# “Bertsotan egiteak eta marrazteak duten antzekotasun bakarra, sortzen didaten erretzeko gogo da”



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

**Altza Porrun parte hartu duzun arren, komiki-kontakizun osorik ez duzu egin gainontzeko marrazkilariek ez bezala. Zentsuratu egin al zaitu Jakobak?**

Banekien jakin Jakobak ni zentsuratze-ko asmoa zeukala eta horregatik, neure buruari inportantzia emanaz, erabaki nuen aukera hori ez ematea. Eta bai, egia da ez dudala gainontzeko marrazkilariek legez komiki-kontakizun osorik egin Jakobarekin berbatuta dudalako hurrengo albuma neuk idatzi eta marraztuko dudala oso osorik. Edozelan ere, hori ez publikatu beste marrazkilaria haserretu egingo direlako –edo beste guztiei ere eskaintza bera egin ote die alubita horrek?!–.

**Aprobetxatu duzu, ordea, Jackoba super-heroia sortu eta hura intxaurrondo bihurtzeko. Bazuen arrazoirik zu zentsuratze-ko, agian...**

Jackoba Super Erroia *H28* aldizkarian agertzen estreinakoz eta Marvelen Garden&Heroes sailaren eskaintzari uko eginez *Altza Porrurako* gordetzea erabaki nuen. Intxaurrondo bihurtzeak badu azalpen simple bat: marrazkilaria kaxkarra naiz eta kosta egiten zait mugitzen diren gorputzak marraztea.



**Eroso sentitu zara “Desapioaren txanda” ariketan, ezta?**

Kartzelako gaiaren ariketara ohituta nagoelako badiozu erantzungo dizut ezetz. Bertsotan egiteak eta marrazteak daukaten antzekotasun bakarra da batak zein besteak erretzeko itzelezko gogo sortzen didatela.

**Marrazkigintzarekin, politikarekin edota umorearekin lotu izan dute baratzea aurreko elkarriketetan. Bertsolaritzarekin izan al dezake loturarik?**

Jakina! Ez gara, ba, marrazkilaria edo politikaria baino gutxiago izango! Guk ere baditugu gure piperrak, kalabaza galantak, artabururen bat edo beste (beti ere errespetuz) eta nonahi hazten den txominbedarra, zerbitzari hau tarteko.

**Alberjini zalea al da Unai Iturriaga Zugaza-Artaza?**

Gogoan dut munduan gure hazia hedatzeko anbizioa izan aurretik bagenuela etxean sukaldean aritzeko grina. Bikotekideak haragi xehatuz eta gaztaz beteriko alberjini demasakoak egin ohi zituen tarteka. Gogoratze hutsak Paris-ko zikoinari bidalketa bueltan eramatea eskatzeko gogo sortzen dit. ■



**EUSKAL OROIGARRIAK**

Harizko brodatu pertsonalizatuak

Kale Nagusia, 16  
San Jeronimo, 14  
Portu, 14

2003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

BISITA GIDATUA ETA BAZKARIA

1

## Amaiurko Gazteluaren historia ezagutzeko bisita gidatua eta bazkaria Iruñeako Alde Zaharrean

Euskal Herriko hiriburuan ikusgai dago lehen aldiz, Aranzadi Zientzia Elkartek antolatutako Amaiurko Gazteluaren inguruko erakusketa hau. Kondestable Jauregian kokatuta, Iruñeako Alde Zahararen erdi-erdian, erakusketa honi esker Amaiurko gazteluaren historiaren nondik norakoak ezagutu ahal izango ditugu, bertan aritutako arkeologoaren eskutik. Amaiurko Gaztelua Nafarroako kultur ondare erreferentea da, 1522an gertatutako mugari historikoaz geroztik mendeetan zehar nafar gizartearen interes handia piztu duen gunea dena.

Erakusketa bisitariak bere iritzia propioan sakontzeko diseinatu da, pentsamendu kritikoa uztartuz eta Amaiur ulertzeko hainbat ikuspegi azalduz. Erakusketa hiru eremutan sailkatzen da: oroimenarena Zagan aretoa, artearena Patio gunean eta zientziarena areto Gotikoan. Urtarrilaren 28ra arte egongo da zabalik, astelehenetik larunbatera.

Bi pertsonarentzako soilik egindako bisita gidatua eta bazkari pasa bat zozketatuko dugu, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoekin batera egingo dena. Bi lagunentzako bazkaria Oreja jatetxean izango da.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



### ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Zorroagagaina, 11 · 20014 Donostia  
[www.aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus) / [idazkaritza@aranzadi.eus](mailto:idazkaritza@aranzadi.eus)  
 Tel.: 943 46 61 42

#ondarea  
 #oroimenhistorikoa  
 #lurraldetasuna  
 #arkeologia

### Hilabeteko honetako sariak

1



Aranzadi Zientzia Elkartearekin bisita gidatua eta bazkaria Iruñeako erakusketan  
**2 pertsonarentzako**

2



Ipar Euskal Herriko Laborantzaren egoera eta garapena  
**4 liburu**

3



Euskaltzaleen aktibazioa XXI. Mendean jardunaldiak  
**2 sarrera**

4



ARGIA 2017 Egutegia  
**3 egutegi**

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | [gunea@argia.eus](mailto:gunea@argia.eus) | [www.argia.eus/gunea](http://www.argia.eus/gunea)

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



# São Paulotik gutuna



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Brasildik jaso dut posta bat. Estebe Ormazabal Insausti beasaindarraren hitzak dira jaso ditugunak; ARGIAko harpideduna bera. Ez da txoko honetara ekarri dugun atzerrian bizi den lehen laguna. Pixkanaka ari gara biltzen Euskal Herritik kanpora dugun komunitatearen iritziak, hausnarketak, kritikak eta laudorioak.

Lan kontuak tarteko, 1996an gurutatu zuen itsasoa Ormazabalek Brasilia ailegatzeko. Lehendik Ingalaterran, Suitzan, Alemanian, Italian eta Irlandan ibilia zen. São Paulon bertan ere ez du curriculum makala: nahiz eta gaur egun hezkuntza munduan murgilduta dabilen, besteak beste, São Pauloko Eusko Alkartasuna euskal etxeko lehendakaria izan zen denbora batez, unibertsitatean euskara irakasle lanetan aritua da, eta euskal migrazioari buruzko liburu bat ere idatzia du.



Baina, noiztik jarraitzen du ARGIA? Oraindik zerurik galdu gabea zela ezagutu omen zuen astekaria, eta garai hartan tarteka irakurria omen; baina gerora pista galduta, 2000. urte inguruan egin zen harpidedun, Rio de Janeiroko lagun euskaldun baten etxean ARGIA berriz ere eskuartean izan ondoren. Eta aitortu dit gustuko duela kazetariek gaiei ematen dieten ikuspegi anitza bezala kritikoa. ARGIAko harpidedun izateak "euskaraz irakurri eta bizitzen laguntzen" diola esan digu, "mundua euskaraz ezagutzeko aukera" ematen diola, eta "plazera dela kalitatezko kazetaritza euskaraz irakurtzea".


Ez dakit ezer txarrik esanez gero astekaria bidaltzeari utziko diogunaren beldurrez-edo bota dizkion ARGIAri horrelako loreak, baina gustua ematen du horrelako erantzunak jasotzeak. Mila esker, Ormazabal. ■

## 📁 Azaroko sarituak

- **Tribial feminista:** Aniturri Institutua (Agurain), Maite Aboitiz (Bilbo).
- **Skakeitan taldea ikusteko sarrerak:** Asier Lizarriturri (Aretxabaleta), Koldo Artola (Donostia), Ama lur Bedialauneta (Ondarroa), Maria Asun Azpiazua (Mutriku), Roberto Kerexeta (Elgoibar).
- **Altza Porru:** Andoni Mitxelena (Donibane Lohitzune), Aitzol Goikoetxea (Hondarribia), Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga).
- **Simaurraren konpostakea:** Emilio Mugica (Zornotza), Victoria Gurrutxaga (Ondarroa)



Gari & Maldanbera  
"Estutu"



Ruper Ordorika  
"Guria ostatuan"



Xabi Solano Maiza  
"Ereñotzu" eta "Trikitixa liburua II" + CDa

# AMAIERA ONEKO ANNE FRANK



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Amsterdam, 1942ko uztailaren 9a. Anne Frank eta bere familia etxe baten atzeko aldean ezkutatu ziren naziengandik. Ordurako, Rotterdamen Carry Ulreich ere ezkutuan bizi zen familiarekin. Guztira 30.000 judutik gora ezkutatu ziren Herbehereetan alemaniarren okupazioak iraun artean, eta gehienak, 25.000 inguru, onik atera ziren beren ezkutalekue-tatik. Carry Ulreichek, Anne Frankek bezala, egunkari batean idatzi zituen hiru urtez ezkutuan bizitakoak. Eta berriki egunkaria lehenengoz argitaratu da 's *Nachts droom ik van vrede* (Gauetz beakea amesten dut) izenburupean.

Carry Ulreich Anne baino bi urte eta erdi zaharragoa zen, 16 urte zituen ia. Ulreich familiak Polonian zuen jatorria; Frank familia, aldiz, Alemaniatik zetorren -Anne bera jaio ondoren joan ziren Herbeheretara-.

Biek zituzten haiek ezkututzen laguntzeko eta, ondorioz, bizitza arriskuan jartzeko prest zeuden bizilagunak. Baina Frankdarrek, "atzeko etxean" sartuta, ez zuten laguntzaileekin ia harreman zuzenik. Carryren familiako kideek, berriz, etxea partekatzen zuten Zijlmans familiarekin. Anne Frank, judua izanik ere, ohitura lasaiagoko inguru liberalean hazi zen. Carry eta familia judu ortodoxo zorrotzak ziren, eta etxean hartu zituzten Zijlmanstarrak katoliko



MOZAÏEK

Carry Ulreich (ezkerrean) eta Rachel ahizpa 1939an. Hurrengo urtean alemaniarrek Rotterdami eraso egin eta okupatu zuten. Ondorioz, Ulreich familia ezkutatu egin zen eta Carryk egunkari batean jaso zituen ezkutuko bizimoduaren nondik norakoak, Anne Frankek egin bezala.

praktikanteak. Hala, bi familien arteko eztabaida eta hausnarketa teologikoak jaso zituen Carryk, baita talka horrek ezkutuko egunerokotasun estuan eragiten zituen arazo eta zalantzak ere. Esaterako, Carryk bere buruari galdetu zion zergatik ezin zuen jan bizilagun katolikoek jaten zuten berdina, koshera edo juduei egokitua ez zen otordua lehenengoz egin zuenean: "Gaur untxi errea gurinarekin afaldu dugu (...) lehenengo aldia da *tefra* jaten dugula, eta azkeneko aldia izatea nahiko nuke". Baina berehala egunkariari aitortu zionez: "Egia esan, oso ona zegoen. Oilas-

koa ematen zuen. Zergatik ezin dugu horrelakorik jan?"

Talkak talka, Zijlmans familiaren aha-legina eta eskuzabaltasuna aitortu zuen eskerronez. Etxeko gela nagusia, leihoduna, utzi zietela idatzi zuen eta "haiek pataten txokoa itxian" lo egiten zutela.

Ñabardura horiekin guztiakin ere, bi nerabeen bizipenak berdintsuak izan ziren naziengandik ezkutuan izan ziren bitartean. Amaiera, ordea, oso bestelakoa izan zuten bi historiek. Anne Frank tifusak hil zuen 1945eko martxoan, Bergen-Belsen esparruan. Carry Ulreichek 90 urte bete berri ditu azaroan. ■



**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago,  
handitzen, berritzen eta gizarte  
eta ingurumenarekin  
konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000







# AITORTUKO DUZUN BIZIOA

gaztezulo

22€



943 457 250

[harpidetza@gaztezulo.eus](mailto:harpidetza@gaztezulo.eus)

# Sor lekua hegalez

Joan Batista Elizanburu bertsolariaren *Txori berriketaria* sortan, txoriak sor lekuaren eta erbestearen arteko lotura iruten du. Berriak ekartzen dizkio etxetik urrun, kasik gatibu eta galdua bezala dagoen emigrante gaizoari. Zortzi kopla dira, soinu herrikoi lasai eta sakonak zurkaiztuak. Zenbaiten ustean saratarrarena izan liteke melodia ere. Dena delakoan, abesten direnean zirrara erromantikoak betetzen gaitu, begiak hezetzearino.



**Itxaro Borda**

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Euskaldunok jendalde malenkoniatsuak gara. Herrian bertan gaudenean ohiturak, paisaiek edo hizkuntzak, besteak beste, bihotzak handitzen dizkigute. Urruntzen garenean aldiz, herria dugu ments, bere argi eta ilunekin. Arrantza dela, artzaintza, urrea bilatzea, lanbide arruntagoak, politika arazoak eta gaurko egunean berriz gazte ikasien langabezia, beti ukan dugu aitzakia bat herri-tik partitzeko.

*Sor lekua utziz geroz  
ondikotz hala beharrez  
Jainko ona urrikaldu  
da beti ene negarrez.  
Primadera hasi orduko  
arbolak estaltzen lorez  
xoritto bat heldu zait beti  
ene herritik hegalez.*

Amak, sukaldean ogi-zakuak konpon-tzen ari ginela, kantatzen zigun: Parisen ikasia zuen bigarren mundu gerra ondoko bere sehi denboretan. 1999an Elkar argitaletxeak plazaratu zuen iparaldeko hogeita bost izarrek moldatu Elizanbururen lanekiko diskoa eta Txomin Artolak, Beñat Axiarik eta Frantxua Irigoienek ematen zuten *Txori berriketaria*, Maddi Oihe-nartek *Doi* albumean beretu zuena duela gutxi, Jeremy Garaten laguntzarekin.

Joan Batista Elizanburu Saran sortu zen 1828an eta herioak eraman zuen 1891. urteko lehen egunetan. Bertsolaria zen, ikaragarria, paperetan, sekula plazetara atera gabe. Pauen argitara eman zuen *Piarres Adame* (1888) nobela kostunbristaren idazlea zen: egiazko irri zaparta osasuntsuaren dasta oparitzen zigun lapurtera lorios batean. Larresoroko seminarioan apez gai egonik Zaldubi ospetsuarekin batera, armadan sartu zen, hondarrean epaile ibiltari gisa ezagun egin zen Lapurdin zehar.

*Neregana hain urrundik  
etortzean unatua,  
Arbolarik hurbilena  
du bere pausa lekua.  
Aldaxka goren-gorenean  
horra non den lokartua  
Lumapean zango bat eta  
hegalpean du burua.*



Txoriak bakearen irudia ekartzen dio poetari. Jakin behar da Elizanburu, 1870ean frantses armadako kapitaina, preso geratu zela Metz aldean alemanen eskuetan. 1871n libratu zuten, Napoleón III.a erori zenean. Sarara itzuli zen. Txori berriketaria pixka bat lehenago izkiriatua zuen, aurreko larrazkenean hain zuzen. Hitz bederak urruti minaren oihartzunak dakarzkigu.

Anton Abadia Urrustoik 1871n Saran antolatu Lore Jokoetan irabazi zuen Elizanburuk sari potoloa. Donibane Lohizuneko Doiharçabal izengoitiarekin aurkeztuak zituen 1869an. Luzaz uste izan zen gainera kopla hauek Martin Guilbeau eruditua zirela, berak, 1897an Elizanbururi omenaldia egin zitzaionean Saran, auzia argitu zueneraino.

Kantak, berehala, gaitzeko arrakasta ukan zuen. Hegoaldean, Karlistaldietatik landa, foruak kendu zirenean,

jendeak Ameriketara joaten hasi ziren oldean, halaber Iparraldean, frantses iraultzaren ondotik aterabide askorik ez zegoelako hemengo gazte eta adinekoentzat. Erran dezadala zortean tirutako mutikoentzat orduan soldadutzak bost urte irauten zuela eta erbestea salbamena zela askorentzat.

*Oroit hadi bai txoria  
herri maiteko berriez.  
Nere aita, nere ama,  
negarretan nik utziez.  
Mintza hakit ahaidez eta  
mintza lagun on hekiez:  
Mintza nehor ahantzi gabe  
maite ninduten guziez.*



Hemeretzigarren mende bukaeran eta hogeigarrenaren hasieran Euskal Herri osoan metodikoki marraztuak ziren migratze bideak. Donibane Garazin adibidez, Charles Iriarten konpainia ezaguna axolatzen zen Kalifornia, Idaho, Wyoming, Arizona edo Nevadarako ibilaldiaren zertzeladez, tren eta ontziko txartelak, paperak, pasaporteak, baimen ezberdinak, batzuetan bidaietako jantzi, puska eta mailetak eskaintzen zituela. Urrutiko zedarrien ametsak milaka kide ilusitu zituen: Ameriketara, agudo eta erraz, aberasten omen zen. Bizitza erreusitu zuten amerikano belaunaldi berriei mukurutu ziren herriak. Besteak eremu desolatueta sustraitzen ziren esperantzaz desesperatzen, ohorearen izenean ezin etxera itzuliz.

Mauleko Ikertzaleak elkarteak hila-bete pare duela aztertu zituen Atharratzen zabortege baten maldan kausitu Alexis Vigné (1855-1915) enpresaren kaierak: Zaraitzutik, Aezkoatik, Erronkaritik, Basabürütik, Pettarretik, Amikuzetik edo Oztibarretik Argentina-ra, Txilera, Uruguaira joan nahi zuten emazteen eta gizonen zerrendak ikusgarriak dira, lur hauen odol galtze humanoaren neurriaz jabetzeko. Arrazoi ekonomikoak oinarrian, bistan dena, baina baita abentura tirria ere, eta zergatik ez, herri txikietako kontrol lehergarririk ihes egiteko desira.

*Atzar hadi, atzar bada  
berriketari abila:  
Nere beldur izan gabe  
jaits hadi hurbil-hurbila.  
Erran, leihora izan haizen,  
erradak isil-isila,  
Izan ere hunatekoan  
solas-ordainaren bila.*

Etxeak husten irudikatzen ditugu, anai-arreba kordelak hegaldatzen Elizanburuk hain ederki azaltzen digun txoriaren gerizan. Lehen sortua base-rrian gelditzen zen, bigarrena apez joaten, besteak soldadu edo serora, gainerakoak emigratio agenteen hazkurri

» Hemeretzigarren mende bukaeran eta hogeigarrenaren hasieran Euskal Herri osoan metodikoki marraztuak ziren migratze bideak. Donibane Garazin adibidez, Charles Iriarten konpainia ezaguna axolatzen zen Kalifornia, Idaho, Wyoming, Arizona edo Nevadarako ibilaldiaren zertzeladez

bihurtzen zirela. Migrazioak betidanik jende-trafiko emankorrek izan dira. Gu-rean ere.

Saratarraren txoria zein motatakoa zen ez dugu nehoiz jakingo. Zehaztasunik gabeko hegatzia poetaren leiho hegira, kartzelako barroteen erdira ala haize hotzak erraztatu basamortuaren mineko borda zatarrera hurbiltzen da, itxuraz baketsua, indarrean emankorra, abila bezain ahula, umila, baina itsasoak, mendiak edo hiri guñeak trabskatu ditzake etxeko berriak ekarriz moko artean:

*Pausa hadi, lo egizak  
txori maitea bakean!  
Atzarriak hi hire zain  
hemen nauk hire aldean.  
Ur xortarekin hona hemen  
papurrak leiho gainean,  
Baina gero hango berriei  
oroit hadi atzartzean!*

Txoriak, arras hautsia dabilen bertso-lariaren ustez, ez du deusen beharrik, airea, kantatzeko dohaina, bihi pare bat eta zero zabala hegaldatzeko. Jendea alderantziz ez da horrela: gose dabil, hausnarrean marmaraz, arranguratua, xifritua ez duelako inoiz aski dirurik, funtsik, botererik, ohorerik, jakintzarik. Poetak, agian, bere baitan txoriaren nor-tasunaz jabetzeko gutizia gordetzen du:

*Jainkoaren ontasunak  
ez hau ahantzi xoria.  
Non nahi kausitzen duk  
aise hire janaria.  
Zer behar duk? Ur xortatto bat,  
bihitto bat edo bia,  
Ordainez duk alegeratzen  
kantaz hik oihan guzia.*

**GIZABURUAGAN**  
**EUSKARAZ BIZI GARA**

**GIZABURUAGAKO UDALA**

Elizaldea, 2

Tel./Faxa: 946 842 586

idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

[www.gizaburuaga.eu](http://www.gizaburuaga.eu)



Emigrantea, kartzelatua ala bizitzak bakartuarentzat txoriaren hegaldiak premiazkoak dira. Lo dagoelarik gertakariarik hitsenak irudikatzen ditu, makurrik latzenak oinarrizko euskaldunon pesimismoaren ildotik. Postariaren pare, mezulari lana egiten du hegaztiak, mundu osoko posta enpresa askoren ikurra delarik txoria:

*Xoria, lo hagolarik,  
ikaran nago aidean;  
Ez ahal da zorigaitzik  
maite nautenen artean.  
Hala balitz, otoi xori,  
berriz herrira heltzean,  
Loretto bat negar batekin  
pausa zak tinba gainean.*

Urepeleko Xalbadorrek Ameriketarako jende-isurien maldizioa luzatu zion semeari igorri bertso izugarrietan 70eko hamarkadan: lana hemen sortuz gero nehork ez zukeen gehiago herria uzterik:

*Zintzoki jarraik hadi  
hi hire bizitzan  
Ni baino aita hobe  
izaiteko gisan  
Hire semeak ez dezan  
joaiterik izan...*

Elizanbururen bertsoek uhertzen gaituzte egundainokoan: alabaina, nork ez du erbestearen dasta mikatza aho zokoan eduki hondar mendeotan Euskal Herrian? Migratze uhin handiak dituzten herrialde orotan hautematen dira nostalgiaz, herri-minez, joan-nahiaz eta txori zoharrez hanpatu abestiak. Bideak hargatik ez dira seguruak eta lanjerrez beteak dira.

*Xorittoa joan denean  
hostoen eror denboran  
berriz etor ez dadien  
nago beldurrez ikaran.  
Ihiztaria hartzen baduk  
ene xoria segadan,  
Utzak, otoi, gaixoa libre  
berriak ekar detzadan. ■*



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK  
GUREAK  
GOZOAK  
KALITATEZKOAK  
**Hoberenak soilik  
aukeratzen ditugulako**

☎ 943 650 253  
www.tolosakobabarruna.eus





# duran...go! goazen!

Euskara Saila

[www.durango-euskaraz.eus](http://www.durango-euskaraz.eus)



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Sentimenduen zurrumbiloa



Xabier Etxaniz Erle



### Txopo

GAIZKA AROSTEGI

Ilustratzailea: Enrique Morente.  
Ibaizabal, Bilbo, 2016.  
96 orrialde.

Gaur egungo gaztettoentzat *Txopo* ez da oso ezaguna izango, eta agian, bitxia egingo zaie liburuaren azalean Athletic taldeko atezain baten irudia (kromo bat) agertzea. Kontua da Arostegik 1975ean giroturiko istorio bat kontatzen digula liburu honetan, eta zeharka bada ere, Iribar atezainak paper garrantzitsua duela bertan.

“1975eko urtarrilaren 17an, Hugo, nire lagun minetako bat, hiltzeaz zegoela jakin nuen. Data ongi baino hobeto oroitzen dut. Hamar urte bete nituen egun hartan”. Horrelaxe ekiten dio Arostegik liburu honen kontakizunari; lehen pertsona narraturiko istorioa eta hamar urteko narratzailea, mutikoa, protagonista duela. Jonek Hugorena jakitean sentitzen duen tristura eta pena laguna bisitatzeko gogoarekin batzen dira. Horrela, Andoni eta Txirurekin joango da Gurutzetako ospitalera, laguna ikustera: “Argalago zegoen. Larruak kolore histua zeukan eta begiek lehenagoko distira alaiak galdu zuten”.

Irakurleak, liburuak kontakizunaren tonuagatik, nabari dezake heriotzaren presentzia, lagunaren galerarena, baina baita haurren ausardia eta inozentzia ere.

Hugok, lagunak agurtzean, honako komentario hau botatzen du: “Nire ametsa Iribar bezalakoa izatea zen, Athleticetako atezain, eta pena pixka bat ematen dit bera ezagutu gabe hiltzeak. Seguru nago gizon jatorra dela”.

Hiru mutikoak burumakur ateratzen dira laguna ospitalean hain larri utzita; eta bueltak ibiliko dira Hugori alaitasuna edo pozen bat nola eman, harik eta gaztettoaren ametsa egia bilakatzeko bideari ekiten dioten arte. Hugok Iribar ezagutu behar du.

Eta hortik aurrera, egoera eta testuinguru horretan bada ere, badirudi egileak abenturazko nobela batean sartzen gaituela. Nola atera Hugo ospitaleetik eta Lezamaraino eramana (protagonistak haurrak dira, hau da, diru gutxi dute, eta gainera, 1975ean gaude).

Irakurlea harrapatuta dago mutikoen abentura horretan; etsipen eta errealismo puntu batekin bereganatzen ditu protagonisten asmoak, horiek hutsean geratu baitira ospitaleetik irtetean. Gurasoek, baita Hugorenek ere, haserretu beharrean eskerrak ematen dizkiete mutikoaren baitan sortutako poz uneagatik. Jonek, Andonik, Txiruk eta Sarak orduan, beste ideia bat dute. Iribar bera joan dadila Hugo bisitatzera, horretarako atezainarengana iritsi beharko dira eta azaldu Hugori gertatzen zaiona eta mutikoaren desioa.

Gaizka Arostegik aurretik ere erakutsi digu istorioak eta abenturak kontatzeko duen abilezia, eta oraingoan lortzen du irakurlea sentimendu eta gora-beherez beteriko nobela honetan harrapatzea. Sentimendu mota askotakoak, lagunaren galera, baina baita maitasun, etsipen edo lortutakoagatik poza ere. Eta hori dena ekintzez beteriko zurrumbilo batean; gertakariak ondo ez atera arren, apurka eta harietatik tiraka helburua lortu arteko zurrumbiloa. Ekintzen eta sentimenduen zurrumbiloa. ■

Gaizka Arostegi (Portugalete, 1965) idazlea, musikaria eta dokumental egilea.





## » TELEGRAMA

**Pantxo Carrere** azkaindar musikariak bakarleri gisa plazaratu duen *Anaitasunean* diskoaren aurkezpena egingen du Hendaiaiko Les Variétés antzokian, abenduaren 1ean, ostegunez, 20:30etan **STOP Iruñeko Katakarak** kultura konpainiak bere argitaletxearen aurkezpen hitzaldia egingen du abenduaren 1ean, 19:00etan **STOP Zea Mays** talde bilbotarrak *Harro* disko berria aurkeztuko du Gasteizko Jimmy Jazz musika aretoan, abenduaren 1ean, 20:30etan **STOP Mankiewicz versus Mankiewicz** Zinemateka zikloa abiatuko da **Bilboko Azkuna Zentroan** (Alondegia), abenduaren 14an hasi eta martxoaren 2ra arte iraunen du zikloak **STOP**

## » KONTZERTUA

## Harrera hotza



Montse Auzmendi

### Rossiniren Cenerentola

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA  
BILBOKO OPERAREN ABESBATZA

**Zuzendariak:** Antonello Allemandi / Boris Dujin.  
Eszena zuzendaritza eta eszenografia: Jean Philippe Clarac eta Oliver Deloueil. **Bakarleriak:** José María lo Monaco (mezzo), Edgardo Rocha (tenorea), Paolo Bordogna (baxu baritonoa), Bruno de Simone, (baritonoa), Petros Magoulas (baxua), Marta Ubieta (sopranoa), María José Suárez (mezzo).

**Toulon-eko operaren produkzioa.**

**OLBEk antolatua.**

**Lekua:** Euskalduna Jauregia.

**Data:** azaroaren 19a.

*Gioachino Rossiniren (Pesaro, Italia, 1792–Paris, 1868) "Cenerentola" usu da interpretatua.*



Egia esan, denboraldi honetako bigarren produkzioa ez da izan ikusi eta entzundako onenetako bat, baina publikoaren harrera hotza bai izan dela sorpresa, niretzat behintzat. Txalo gutxi, oso gutxi, ia-ia denborarik ez abeslari eta artista guztiak agur esateko, bat-batean oihala beheraka... Esan bezala, ez zen saio ona izan, baina taula gainera igotzen den edozeinek merezi du beste arreta bat.

Hori esanda, ba bai, Rossiniren *Cenerentola*-k beste taxu bat behar zuen. Eszenografia bitxia izan zuen, irudimentsua esango nuke, baina, batzuen gusturako, pobrea. Agertokiaren erdian jarritako egurrezko kubo batekin konpontzen ziren giro guztiak, buelta

emanda, alde batera edo bestera. Balekoa. Bestalde, jatorrizko istorioa XVII. mendean kokatzen da, eta kasu honetan –azkenaldiko produkzio askotan bezala– gaur egunera pasa da, baina logika handirik gabe. Agertzen dira polo jokalaria batzuk, arrazoirik gabe, eta laburbilduz, modernizatzeko asmo hori deskalabru txiki bat bihurtu zen.

Musikalki, zer esango dugu? José María lo Monaco mezzo garrantzitsua da, baina ez zuen izan aukerarik nabarmentzeko aldi honetan. Akustika dela, edota orkestraren gehiegizko bolumena une askotan (batez ere lehenengo ekitaldian), azken batean ez genuen asko entzun Angelina gaixoa. Gauza bera esan genezake Edgardo Rochari buruz. Saiakerak egin arren, nahiko ilunduta geratu zen haren saioa. Halere, zailtasun guztien artean, Paolo Bordogna baxu baritonoak jakin zuen akustikaren arazoak gainditzen eta interpretazio distiratsua eskaintzen. Benetan, saioak emandako onena. Ahots garbia, fraseatze dotorea oparitu zituen, eta interpretatzeko grazia eta trebetasuna nabariak izan ziren. Bruno de Simone baritonoak, berriz, Don Magnifico taxuzkoa egin zuen. Eta Marta Ubieta eta M<sup>a</sup> José Suárez, Clorinda eta Tisbe roletan, eraginkortasunez eta komikotasunez aritu ziren.

Antonello Allemandik zuzentzen zuen Bilbao Orkestra Sinfonikoari fintasan pittin bat falta izan zitzaion abeslariak azpimarratzeko ahotsak zapaldu gabe. Lastima. ■

# Bueltak

## BERRI TXARRAKEN KONTZERTUA

Iruñeko Zentral aretoan eskainitako emanaldia, azaroaren 3an, ostegunez.



Julen Leuza Izkue  
@JulenLeuza

Deitu didate esanez, ordu erdi barru hasiko den Berri Txarrak kontzerturako sarrera bat soberan dutela. Iruñean joko zutela jakin nuenean dagoeneko sarrera guztiak agortuak ziren, eta hau harrotasun zentzugabez aipatzen nuela gogoratzen dudana bitartean janzten hasi naiz, sarrerari baietza eman eta gero. Berri Txarrak ikustera noa.

Zentralean sartu naiz. Berriren publikoa oso gaztea, gazteegia da, eta hori txarra da. Kasu, ez. Berriren publikoa orokorrean ez da inolaz ere gaztea, eta dudak ditut talde baten publikoa gaztea izatea gauza txarra den. Tira. Kañoia bat hartu dut. Kañoia nire gurasoek erabiltzen ez duten hitza da, eta kañoia handia hiru euroan hartzera behartzen nauen eufemismoa. Bai? Ez. Bueno, bai.

Hasi da Berri Txarrak. Lehen kantua entzuna dut, ezaguna, baina ez dakit zein den. Ez diot inori esanen, errepika dakidan kantua heltzean argi utziko dut Berri Txarrak jarraitzaile sutsua naizela. Heldu da! Kasualitatea gaurkoa, justu kantua hori gainontzeko guztiek dakite, errepika ereserki bihurtu da. Denok gara Berriren jarraitzaile sutsuak orain. Berdin du... edo ez? Ez. Bueno, bai. Tira, bai.

Jotzen ari dira, eta bigarren kañoia eskatu nahi dut. Barrara noa askoren aurpegi zimela jasaten dudana bitartean, leku egitea esfortzu handiegia zaie. Noski, Berri Txarrak fan armada, dogmatikoak, irrazionalak, errespetugabe, lotsagabeak. Noski, noski. Geldi, agian nire sentsazioa izan da. Ez, ez, hobe Berriren jarraitzaileak gorrotatzea. Zaude, noski nire sentsazioa izan dela. Gaixok. Gaixoa ni.



Publikoa sutan ostiraleko kontzertuan.

EIDER ITURRIAGA

Jotzen jarraitzen dute. Kobratzen duten diruarekin, edonork. Kapitalistak. Hobe talde txikiak kobratzen ez dutenaz arduratzea Berri Txarrak irabazten duenaz kezkatzea baino, azken finean, sortzen duten dirua da. Baina hori futbola bezalako negozioak justifikatzeko erabiltzen den argudio erreakzionarioa da. Sarrera truke daude baina, eta ez da garestia. Julen, otoi.

Ari dira oraindik. Aiba! *Jaio. Musika. Hil.* diskoko kantu bat. Noski! Ni Berriren fanatikoa izan nintzen disko hau atera zuten arte. *Libre* da haien diskorik hoberena. Ez, barkatu, *Libre* historian egin den diskorik hoberena da. Orain gogoratu dut duela gutxi kotxean gustu gehienez entzun nuen diskoa *Jaio. Musika. Hil.* izan zela, Berriren karpeta ireki nuenean. Karpeta, diskoetatik mp3ra bihurturiko artxiboak biltzea, Berrirekin eta Tapia eta Leturia Band, Lendaris Muertos eta Oskorriekin soilik egin dut. Berriren disko guztiak ditut, bakarra naiz, autentikoena, fanatismo ortodoxoak ez du nire gustu pribilegiatua gaintzen. Baina haiek kanta hau dakite eta nik ez. Bueno, ba jarraituko dut esaten *Libre* haien diskorik onena dela, hori pentsatzen ez badut ere. Edo pentsatzen dut? Orain ez dakit.

*Libre*ko kanta bat! Ez da kanta, beste bat da. Denek dakite nik baino hobeto. Aizu, baina agian nik gehiagotan entzun dut nahiz eta letra ez ikasi. Ez, ez da horrela. Baina lau ziren, eta nik ikusi nituen lau zirenean. Ingurura begiratu dut, uste dut %80k ikusi dituztela lau zirenean. Baina hirukotearen lehen kontzertua

ikusi nuen, Akelarren. Bai, izebak eraman ninduelako. Baina hori ez daki inork (izebarena), nik beste meritu bat bezala aipatuko dut. Zertarako baina? Ba ez dakit, guay bat izateko. Ez, guay dira haien diskorik onena lehena dela diotenak. Bai, hori da, hori, hori, ni ez nago maila horretan. Lau zirenean ikusi nituen, bizitza arriskuan duzun lehen kontzertu horietako batzuetan. Uste genuen Gorka drogatua igotzen zela eszenatokira, orain badakit ez dela horrela. Gauzak nola diren, gaur ni mozkor nago eta haiek ez.

Betidanik ezagutzen ditut, fan historikoa naiz. Gorkak esan du Iruñeko lehen kontzertuak Iturrama institutu aurrean eta Zulo tabernan eman zituztela. Kalkulua egin dut, nik 4 urte nituen. Zulo, Zulo... kasualitatea ere, sentipenak antzekoak dira zurekin.


Ez dakit zer beste akats atera. Nik neuk denak ezeztatu ditut orain arte, zerbaitek gehiago aurkitzera behartzen nau alabaina. Soinua! Zentraleko akustika izugarri txarra da. Ba ez, dena arras ongi entzuten da.

Amaitu dute. Lagun batek esan dit pena izan dela X, Y eta N ez jo izana. Pentsatu dut K, H eta F (nire gustukoena) ere ez dituztela jo, baina esan diot nik ez ditudala kantak entzun, nik kontzertu bat entzun dudala, eta gozatu dudala.

Izan ere, askok geure gezurrak sinesten ditugula baieztatzen dugu maiz. Zerbait emandako buelta guztien azkenurrekoa bertsio ofizial egiten dugunok arazo psikologikoak ditugu agian, baina badakigu benetako momentuan egia aitortzen. Berri Txarrak hori lortzen du. ■

Egilea: Ana Zambrano

### Gurutzegrama



**Ezker-eskuin:**

- Masail. Bafada.
- Lapurdiko udalerrria, Larrun mendiaren magalean. Alde batetik bestera igaroz.
- Ertza, bereziki ibaiarena.
- Bizkaiko udalerrria (argazkian).
- Abizenaren aurretik doana. Errekatxo.
- Zerbaiten adierazgarri den irudizko zeinu. Okertzera behartu.
- Laboreak jotzen dituen edozein gaitz. Gogo biziz, irrikaz.
- Oliadura eman. Saguzarra.

**Goitik behera:**

- Gogobetea. Gora joan.
- Zizare. Barnea hutsa duena.
- Zilarra.
- Lantegia.
- Ongi da! Idi hitzak hitz-elkarketetan hartzen duen forma.
- Galdetzaille. Aholku.
- Baztergarria, baliorik gabekoa (iparraldean).
- Doinu, melodia.
- Laugarren musika nota. Orrialdea.
- Areago. Kulpa.
- Kaltzio oxido, haitz askoren osagarria dena.
- Errepikatuz, euskal dantza.
- Sakatu aditzaren erroa.
- Gaizto, oker.
- Argazki baten azpian jartzten den testua.

### Sudokua

Erraza



		1	5			8		
	6			4				5
		5		2	8			4
		7		9		5	4	1
4		2				9		6
9	1	3		5		2		
1			2	8		4		
5				3			7	
		9			5	6		

Zaila

		3				9		
4			3			5		
		1		4		8	3	
		2		7	4			3
			1		6			
7			5	9		2		
	9	5		6		1		
		8			1			6
			9				8	

### Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



### Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

- Berba, elea
- Edo
- Herri, aberri
- Baso
- Artilleriako pieza
- Azalekoa ez dena
- Asko, konparaketan
- Bizkarrezurraren hezur
- Hitz lau
- Donari, sari
- Ale, garau
- Adabaki trauskil
- Epe larri

HITZA
KRISI

### Ebazpenak

"Kampalak mezetara deltzin, bera ez joaten."

**ESAEERA ZAHARRA**

- KRISI
- SORKI
- PIKOR
- OPARI
- PROSA
- SAKRO
- ASKOZ
- SAKON
- KANOI
- OIHAN
- NAZIO
- NAHIZ
- HITZA
- ANAGRAMAK

1	6	4	9	5	7	3	8	2
2	7	8	4	3	1	9	5	6
3	5	2	6	8	1	7	4	8
7	1	6	5	9	3	2	4	8
8	4	3	1	2	6	7	9	5
9	5	2	8	7	4	6	1	3
6	2	1	7	4	5	8	3	9
4	8	9	3	1	2	5	6	7
5	3	7	6	8	9	4	2	1

Zaila

8	7	9	4	1	5	6	2	3
5	2	4	9	3	6	1	7	8
1	3	6	2	8	7	4	5	9
9	1	3	6	5	4	2	8	7
4	5	2	8	7	1	9	3	6
6	8	7	3	9	2	5	4	1
6	8	7	3	9	2	5	4	1
3	9	5	1	2	8	7	6	4
2	6	8	7	4	9	3	1	5
7	4	1	5	6	3	8	9	2

Erraza

- 14. Izar. 15. Oina.
- 9. Fa, Orrta. 10. Are, Erru. 11. Kare. 12. Arin. 13. Saka.
- 4. Tallerra. 5. Bon, It. 6. Zer, Onu. 7. Perreka. 8. Ahaire.
- Goitik behera:** 1. Asea, Igo. 2. Har, Ikol. 3. Urrezuri.
- Okerraz: 7. Gorrina, Irlikan. 8. Oliatu, Gaenara.
- 3. Erribera. 4. Elortio. 5. Izen, Errekasto. 6. Iku.
- Ezker-eskuin:** 1. Ahutz, Pata. 2. Sara, Zehar.

## Maura Febles. Kubatar soziologoa



**Habanako Unibertsitatean Latinoamerikako filosofia soziala aztertzen duen GALFISA taldeko kidea da Maura Febles. Teoriatik gizarte aldaketako prozesuei behatzen diete; Feblesekin Kubako ekonomian gertatzen ari den desestatalizazio prozesuari erreparatu dio. Begirada feminista batekin aztertu du prozesua, eta horren aukerez eta arriskuez jardun du Bilbon, *Gizarte mugimenduak eta burujabetze agendak* ikastaroan.**

## “Indartsuagoak dira patriarkatuaren 500 urte iraultzaren 50 urte baino”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

### El Salvadorko jostunekin

“Model kooperatibakoak El Salvadorko *maquila* bateko jostunekin harremanetan jarri genituen hango GKE baten bidez. Etxera zerbitzua ematen duten brodatzaileak dira, oso lan baldintza txarretan aritzen direnak. Bideo-mezuen bidezko harremana egin genuen haiekin hasieran, kartaz gero eta azkenean bertara joanda. Denek zioten emakume salvadortarrentzat oso ona izango zela, baina kubatarrentzat ere onuragarria izan zen; hango emakumeen lan baldintzak ikusita, hain gaizki ez zeudela ikusi zuten. Haiek hamabost brodatzailerentzat makina bakarra zuten, pedalek eragina, eta gurean makina elektriko bana dute jostunek. Azkenerako ‘hara, ez gaude hain gaizki’ zioten. Gure kooperatibatik makina elektriko bat haiei bidaltzea erabaki dute”.

**Ekonomiaren desestatalizazio prozesuan kooperatiba ei da eredurik interesgarriena.** Kubako ekonomia eredu eguneratzearen ildo nagusietakoa desestatalizazio prozesua da, estatuak ezin du bere gain hartzen jarraitu zenbait ataza txiki. Ekonomia eragile eta gune berriek kudeaketa berriak eskatzen dituzte, baita zentzu etikoak, politikoak, eta balioak ere. Kooperatiba lan molde ez indibidualista da, ondasunen metaketa bilatzen ez duena, hortaz, horren aldekoa da gure apustua. Duela lau urtera arte nekazaritza kooperatibak ziren soilik, bestelakoak berriak dira eta hiri guneetan garatzen ari dira. Horiekin lehian daude lan pribatua eta estatuaren enpresa sozialista, aldaketa eredu berriak eta errentagarritasuna bilatzen ari baita azken hori ere.

#### Zergatik ez da kooperatibismoa bultzatu oraintsu arte Kuban?

Estatuaren inguruan dena kontzentratzen zuen ereduak ondo funtzionatu zuen 1990era arte, Sobiet Batasunaren babesarekin. Ondoren, 90eko hamarkadaren, ez zen denborarik egon hausnar-

tzeko, larrialdi bati aurre egiteko hartu ziren zenbait neurri. Kritika batzuek diote orduan egin behar zirela aldatketak; agian bai, baina kontuan hartu behar da Kuban ez dela inoiz tradizio kooperatibistarik izan, iraultzaren aurretik ere ez. Oraindik ez daukagu kooperatiben legerik, lege dekretu bati esker ari gara lanean.

#### Denetarik ereduak ari dira garatzen baina, ez bakarrik kooperatibak. Hor dago eredu estatista bere ajeekin, enpresa pribatuak, autonomoak... Nola ikusten duzu horien arteko harremana?

Ereduen arteko elkarbizitza aurreikusuten dugu. Guk eredu kooperatibista proposatzen dugu, baina eredu guztietan egon daitezke bizitza erdigunean jartzen duten kudeaketak. Lan pribatuan aukera gehiago daude harreman kapitalistak garatzeko, lan eskubideak bortxatzeko. Bestalde, ez dugu uste dena kooperatiba bihurtu behar denik, ezta kooperatiba eraketak ezer bermatuko duenik ere. Eredua edozein dela, dena herritarrek kudeatzea proposatzen



*“Profesionalek Kuban geratu nahi izatea lortu behar da, inbertsio handia egin delako euren hezkuntzan. Arazo larria da zientzia gogorren arloan, asko Kanadara joaten baitira”.*

dugu, herri botereak bere eskualdeak kudeatu eta enpresak gauza publikoenganako ardura mantendu dezan: egiturak, ospitaleak... Elkartasunean bizi izan gara 50 urtez, eta hori oso balio garrantzitsua da.

**Balio negatiboak sortzen ari dira enpresa pribatuetan. Paladar jatetxeen adibidea eman duzu ikastaroan. Ondo irabazten duenak klasetzat du bere burua.**

Arazo handia da, 90eko hamarkadan sortutakoa, formazio handiko profesionalak eremu pribatuan beren hezkuntzarekin zerikusia ez duten gauzetan ibiltzea edo beste herrialdeetara alde egitea. Profesionalek Kuban geratu nahi izatea lortu behar da, inbertsio handia egin delako euren hezkuntzan. Arazo larria da zientzia gogorren arloan, asko Kanadara joaten baitira. Gizarte zientzietan, berriz, bestelako ekoizpena denez, oso krisi handia dago, ikertu nahi ez duten gazte asko daude. Gu zorioneakoak gara GALFISAn, estatuaren menpe

bagaude ere ondo lan egiten dugulako, belaunaldien arteko elkarriketa dago, asko sortzen ari da... Baina salbuespena gara, ezin dugu itxaron herrialdearen produktibitatea altxatu arte soldatak igotzeko. Emigrazioa ez da gelditzen, eta horri gehitu behar zaizkio beste fenomeno batzuk: biztanleria zahartzea, jaiotza kopurua apaltzea...

**Aurreko ereduaren ajeak badira kooperatiba eratu berrietan?**

Bai, denbora beharko da pertsonen pentsamoldeak aldatzeko. Esaterako, ni Centrohobanako Model joskintza kooperatiban nabil aholkulari, duela hiru urte kooperatiba bihurtutako lantegia da eta langile gehienak 40 eta 60 urte bitarteko emakumeak dira, enpresan hogeitaz biko bako gehiago emandakoak. Orain emakume subjektu gisa aritzen ikasten ari dira, beren burua gauzatzen, jendaurrean hitz egiten, erabakiak hartzen, huts egiten duen lankide bat egotzen, falta den materiala lortzen...

**Lehenengo egunean onartu zenuen oraindik matxismo handia dagoela Kuban. Iraultzak ez ote du genero berdintasuna behar bezala landu?**

Eztabaida feminista Latinoamerikako beste gune batzuetan baino beranduago heldu zen Kubara. Hala ere, iraultzaren helburua izan zen emakumearentzako gune berezkoak sortzea, ez berdintasun eredu gauzatzeko, aparte garatu zitezten baizik, hori da egun ere behar duguna. Emakumea oso indartsu sartu zen prozesu horretan, instituzio mordoa sortu ziren, Kubako Emakumeen Federazioa eta beste. Orain eztabaida handia dago Kuban mugimendu feministarik dagoen ala ez, eta oso akademikoa da eztabaida hori oraindik, ez kalekoa. Aktibismo feminista handia dagoela esango nuke, gauza asko egiten dira, baina agenda propioa falta zaio mugimendu horri. Gauza asko ditugu, abortuaren legea eta beste, baina gehiago falta zaigu. Orain eskatzen ari dira indarkeria matxistaren kontrakoa. Baina matxismoa ez da ezabatuko konstituzioak hala dioelako bakarrik. Indartsuagoak dira patriarkatuaren eta inperialismoaren 500 urte iraultzaren 50 urte baino. ■



## Zauritu ugari Sukañietan, Arana´tañ Sabin bere omenaldian ilobitik asañe asañe urten eta gero



Argazki-oina: Arana´tañ Sabinen lelengo ostija Anasagasti´tañ lñakirentzako izan zan

Bildur gatxa izan zan Sukañietan joan dan domekean, EAJko buruzagiak ta an egoazan beste batzuk Arana ta Goiri´tañ Sabinen eriotzearen 113. urteuñena ospatuen ebizela. Txadonatik urtenda-koan jeltzaleen buru Ortu Zatañ Ando-  
nik “EAJ prest dago konplexurik gabe gauzak adosteko, garai ona da Madri-  
len negoziatzeko” esan ebanean asi zan dana okertuten. Aranaren ilobitik ur-  
teten eben zarata ozen batzuk entzun ziran lelengo, eta Sabineker berak urten eban ostean, asañe aurpegi bildurgafi-  
jagaz ta inguruban egoazan danak joz. Lekukoak dinoenez, EAJren irasleak “ofekaz espainolekaz ez dago ezer ados-  
terik!” ofoee egiten eban bein ta bañi-  
ro. “Mundakatik entzun ei ziran ostijak! Hau kozkotegia!”, ganeratu dau izenik emon gura izaten ez dauen beste batek.

Gutzira amazortzi lagun artatu bear izan ebezen inguruko gaixo-etxe baten, amairu Sabin Aranarengandik jasotako zartakoengattik ta beste bostak zonbiak aotik botatako kiratsa arnastuta zora-  
biotu ziralako. Ortu Zatañek onik urten eban gertaeratik, bana oso ikaratuta ta uñengoan abertzaletxuago izateko asmo onagaz.

“Ta ganera euzkera loi ofetan!”, ganeratu eban Aranaker, Ertzaintzaren Ildakobizijen Aurkako Unitateko lau gizon aundik añapatu ta ostera be ilobian sar-  
tu ebanean. Geuk bere, badaezpada ta beingoagattik, euzkera garbijan idatzi dogu izpañ au.

Berba berezijen atzalpenak:  
[https://eu.wikipedia.org/wiki/Sabin-darren\\_euskara\\_garbia](https://eu.wikipedia.org/wiki/Sabin-darren_euskara_garbia)

## Hautagaien aniztasuna ikusita, frantziarrek dona dona cantona bidez hautatuko dute presidentea

François Fillon nagusitu da Frantziako eskuineko muturraren zentroko alderdi sozialistaren hauteskunde primarioetan. Presidente izateko lehian arerio izango ditu Marine Le Pen ezker-eskuineko kontserbadore eta liberal tradizionala eta François Hollande edo Manuel Valls edo eskuin-errepublikar koalizio-  
ko primarioak irabaziko dituen beste hautagaien bat, Antoine Griezmann es-

kuin-aurrerakoia edo Paco Rabanne pibote-eskuina esaterako. Juppé, Sarkozy, Depardieu, D’Artagnan... UMP zeneko eskuin-demokristau asko geratu da presidentetzarako lasterketatik kanpo. Bai, nahasmena ikaragarria da, horregatik hautatuko dute presidentea dona dona cantona bidez. Azken batean, emaitza jakina da: zentroak irabaziko du... zentro komertzialak.

### SAREAN ARRANTZATUA

#### Eutsi Fidel!



#### Egiatzko mundua koloretan



Euskaraz amets egin,  
ikasi, idatzi, lan egin, maite-  
mindu, jolastu, gozatu,  
sentitu...

zu zeu izan Kutxabanken  
ere, bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.  
Galdetu zure bulegoan.



Abenduak 3.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:  
[www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)



2016  
2017

# BizkaIdatz Txikia III

## Haur eta Gazteen Literatura Saria



2017ko otsailaren 17an amaituko da lanak jasotzeko epea  
Oinarriak: [www.bizkaia.eus/foruliburutegia](http://www.bizkaia.eus/foruliburutegia)